



Betikoaren forma berriak

Indarkeria matxistak betikotzeko itxura berriak hartzen ditu / 2-4

Indarkeria matxistaren kontra mobilizatzeko deia zabaldu dute azaroaren 25ean / 4-5

Valentziako kaltetuei produktu gehiago bidali dizkiete eta sakandarrak lanean izan dira han / 8-9

Joanes Bakaikoak Lau eta Erdiko B Serieko txapela jantzi du, kaiolako hirugarrena / 17

Olatzagutiak 'Nafarroa, zinema lurraldea'-n parte hartu du; film labur bat grabatu dute / 21

SINADURAK



ANE ZELAIA
RUIZ DE EGINO / 6



SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK / 6



GALDER GONZALEZ LAPRANAGA / 10



OIHANE AGIRRE ULIJAAR / 22

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak antolatuta, *Indarkeria matxistaren forma zaharberrituak* hitzaldia eskainiko du Arbizuko kultur gunean, gaur, 18:30ean. **Hasteko, zer hartzen dugu indarkeria matxista gisa?**

Genero indarkeriaren kontrako babes integralko neurriak jasotzen zituen legea onartu zen 2004an. Bikote edo bikote ohiaren eremuan gelditzen zen, eremu heteronormatiboan. Indarkeria matxista oso ongi definitu zen 2004an. 20 urte beranduago konturatu gara horretaz berriro eztabaidatu eta pentsatu behar dugula, emakumeek ez baitugu indarkeria bakarrik gure bikotean sufritzen. Indarkeria matxistaren estruktura dago, patriarkatutik eratu dena. Egiturak emakumezkoen sexu indarkeria, laneko jazarpena eta abar eragiten die. Estruktura hori seinalatu behar dugu, ezin dugu bakarrik bikote eremura mugatu. Horregatik terminoa zabaltzen da genero indarkeriagatik indarkeria ma-

"Matxismoaren azpian ez gara bakarrik emakumeak bizi"

SHEILA MELCON LOPEZ PSIKOLOGO FEMINISTA

Indarkeria matxistaren forma berriei maskara kenduz gero lehen egiten ziren indarkeriaren oso antzekoak direla azaldu du

txistara. Horrek hamaika aurpegi ditu: publizitate sexista, sare sozialetan ikusten diren sexu indarkeriaren lekukotzak... Aro digitalean maskarak kentzen

hasi behar dugu, eta ingelesezko izenekin heldu diren gauza batzuei maskara kendu eta atzean dagoen indarkeria matxista seinalatu behar dugu. Hitzaldia

indarkeria matxistak hartu dituen hamaika aurpegiak detektatzen ikasteko da.

Beraz, indarkeria matxista patriarkatuak sortutako egitura bat da?

Patriarkatua sortu den egitura sozial bat da, ez da naturala. Egitura horretan boterea duen jendea dago, beste batzuk zapalkuntza betetako mundu batean bizi gara. Boterea duten gehienak gizon txuri eta heterosexuak dira. Erreparatu behar diogu boterea nola eratu den, nola eman zaion boterea generoari. Hor ere klasea, arrazismoa eta beste ditugu. Patriarkatua beste zanketa sistema batzuetatik heldu da, eta patriarkatuak hori guztia gidatzen du. Egitura hori xaxatu eta irauli behar dugu. Horrek denbora beharko du. Pertsonak seinalatu beharrean egitura, patriarkatua egin behar dugu arduradun. Feministok hori iraultzeko borrokatzen dugu. Ez da bakarrik emakumezkoen onurarako, jendarte feminista guztiontzako da. Baina zein ardatzi erreparatu diogun: generoa, klasea, arrazismoa... Orain horretan gabilta.

Indarkeria matxistak islatzeko modu asko ditu, ezta?

Hamaika forma hartzen ditu, egon daiteke kirolean, erditzerako orduan, inguru digitalean... Genero indarkeriaren barruan:

A25 Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

EZ DA ANTZERKIA, INDARKERIA BIKARIOA DA



"INDARKERIA MATXISTAREN FORMA ZAHARBERRITUAK"

Hitzaldia SHEILA MELCON LOPEZ
Azaroak 22
18:30 Arbizuko eskola zaharra
-EUSKARAZ-

"LA MONA Y LA MAJA" ANTZEZLANA

Udalak antolatuta
Azaroak 30
19:00 Olaztiko kultur-etxea
-CASTELLANO-

"LOTURA BASATIAK" ANTZEZLANA

GOAZ antzerki taldea
Abenduak 13
19:00 Irurtzango kultur-etxea
-EUSKARAZ-

"BABAK ELTZETIK ATERATZEN" IPUIN SAIOA ENTZUN ETA EGIN ZURE ILUSTRAZIOA

IXABEL AGIRRESARIBE
Abenduak 14
18:00 Unanuko elkarte
-EUSKARAZ-

"NO ESTÁS SOLA" LA LUCHA CONTRA LA MANADA. DOKUMENTALA ETA ZINE-FORUMA

IRATXE ALVAREZ
Indarkeria sexistaren kontrako emakumeen plataforma
Azaroak 27
19:00 Hiriberriko kontzeju etxea

"LURRAZ BESTE" LITERATUR SOLASALDIA

GARAZI ARRULA idazlearekin
Abenduak 18
18:30 Lakuntzako liburutegia
-EUSKARAZ-

psikologikoa, ekonomikoa, soziala genituen. Orain indarkeria oso modu zabal batean ulertzen ari gara, pitteka indarkeria mota desberdinak banatzen ari gara: zer da indarkeria digitala, zer da indarkeria sexuala, zer da jazarpena, familia barrukoa... Nik emakumezkoak artatzen egiten dut lan. Eta askotan, digitaletik aparte, pentsaezinak lirakeen indarkeria formak ikusten ditut. Esaterako, haurrak tartean daudenean indarkeria bikario izugarri bat ikusten ari gara. Emakumezkoen kontra kasik ikusezina den indarkeria bat egiten dute (manipulazio psikologikoa), soilik emakumezkoak sufritzen eta ulertzen duena. Emakumezkoek sentitzen dute zorutzen ari direla. Ikusten, sumatzen edo sentitzen ari diren indarkeria hain da bortitza, baina ikusezina era berean, kasik adituak ikus dezaketzen zerbait bilakatu dela. Ez da bakarrrik sare sozialetan ematen den zerbait. Emakumezkoak askotan polizia etxe batera joan behar direnean, lehenik eta behin frogak eskatzen dizkiote. Epailari indarkeriaren frogak eraman behar dizkiogu gure gorputzean, gure mugikorrean edo gure psikean. Eta batzuetan frogak horiek ez ditugu. Polizia etxe batean emakumezkoen kontrako indarkeria instituzionala egin daiteke.

Bizitzako esparru guztietan ematen da, ez?

Jendeak indarkeria matxista emakumezkoen kontrako indarkeria gisa ulertzen du bakarrik. Matxismoaren azpian ez gara bakarrik emakumezkoak bizitzen, baizik eta zanpatutakoak. Patriarkatuak erabaki du munduan egonen direla pribilegiatuak eta menperatuak. Zanpatutako artean emakumezkoek aparte daude pertsona arrazializatuak, LGTBQ+ kolektibokoak, aniztasun funtzionalekoak, txoroak eta beste. Horiengan eragiten duena indarkeria matxista da. Horregatik, poliki-poliki, termino horiek guztiak azaltzen joan behar dira. Esaterako, lodifobiaren bitartez presio estetiko gorpuz disidente horiengana iristen da, normatik ateratzen diren gorpuz horiengana. Hori ere indarkeria matxista litzateke. Gizonezkoek ere sufritzen dute presio estetiko. Edo, esaterako, LGTBQ+ kolektiboaren barnean dauden pertsonak ere pairatzen dute indarkeria matxista, nor-



Sheila Melcon Lopez psikologo feminista Arbizun hizlari izanena da gaur. UTZITAKOIA

matik atera eta aske bizitzen ausartu direlako.

Indarkeria matxistak formaz aldatu beharra du?

Baditugu aski ezagunak diren formak. Orain terminoak aldatu ditugu eta badirudi horren atzean ez dagoela indarkeriarik. Esaterako, *sugar daddy* (aitatxo gozoa), gizon heldu boteretsuen sexu indarkeria gazteek *sugar* (azukrea) gisa izendatu dute, goxatu. Beste izen batekin sexu indarkeriaren praktika bat normalizatu da. Ingeleseko zenbait terminok atzean ezkututzen dutena indarkeria da. Edo gazteek erabiltzen dituzten terminoak batzuetan atzean benetan ezkututzen dena indarkeria da. Institututara joaten naizenean esaten dute: "harreman toxikoa dute". Toxikoa zer da? Indarkeria edo zer da?

Halako hitzek bizitzen ari garen hori txikitzen dute. Forma horiek lehen ere ezagutzen genituen, eta indarkeria eta bestelako terminoak erabiltzen genituen. Orain terminoak aldatu eta in-

"ORAIN TERMINOAK ALDATU DITUGU ETA BADIRUDI HORREN ATZEAN EZ DAGOELA INDARKERIARIK"

"Patriarkatua, 'Statu Quo'-a, berdin mantendu nahi dute; batzuk goian, besteak behean"

darkeriatik urruti baleude bezala aurkezten dira. Azkenean, ingelesezko termino horiek guztiak esanahia aldatzen ari direla dirudi, baina ezaguna da erreallitatea.

Diskurtso matxista batzuk higatuta daude eta patriarkatuak haiek azalberritu beharra sentitzen du?

Bai, noski. Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernuak 2004an Lege Organiko hura sortu zuenean mundu guztiak eskuak burura eraman zituen eta esan zuen: "gizonen kontrako lege bat egiten ari zara, feministak izaten ari zarete gobernuan eta hori ezinezkoa da, hori ideologia da". 20 urte beranduago, feminismoak lekua eta espazioa hartu duenean, badirudi erresistentzia itzelak daudela aurrerapen horietan guztietan. 2004an oposizioa egi-

ten zuen nolabaiteko partidu politiko konkretu bat antolatu da manosferan (pertsona batzuk komunitate digital batean sortutako ideologia antifeminista eta misoginoa) edo fatxosferan. Nolabait bere aurpegia "garbitu" du eta alderdi politiko batzuen interesen diskurtso bera izaten ari dira gazteak konturatu gabe. Influencer, youtuber eta halakoen bitartez eskuin muturreko diskurtso politiko horiek zaharberritu dira. Orain bideojoko batean jolasten ari garen bitartean halako eskuin muturreko mezuak ditugu eta, gure gazteak apenas konturatzen diren. Irensten dituzten diskurtso horiek etengabe erreproduzitzen dituzte. 20 urte beranduago mezu horiek ikaragarriko indarrarekin iristeko estrategia bat izan da, manosfera dago hori gidatzen. Badirudi feminismoaren lehen erresistentzia mutil gazteak direla, eta hori nahiko harrigarria da. Zerk jartzen ditu mutil gazte horiek feminismoaren kontra? Zergatik iristen dira mezu horiek profil jakin batzuetara?

Zer da, indarkeria matxisten formak zaharberritzea betiko erreferentzia tradizionalak iraunarazteko?

Statu Quoa berdin mantendu nahi dute, patriarkatua bere berean irautea; batzuk goian egonen dira, eta beste batzuk behean egonen gara. Feminismoa hori guztia iraultzera etorri da, e-strukturari esatera: "hemen zapalkuntzak daude eta guztien kontrako borroka eginen dugu, arrazismoa, kapazismoa... eta irauliko ditugu". Badirudi horrek izugarriko beldurra ematen duela. Egitura bera mugitzeari benetako beldurra diote. "Hori ez mugitu, bestela zer gertatuko da?" Horregatik sentitzen dute feminismoa arriskutsua dela. Zergatik? Kausara goazelako. Eraikuntza patriarkal horri esatera: "ez, hori ez dugu nahi gure antolakuntza sozialerako". Ez dute jendarte bidezko edo feminista bat nahi. Beti nahi dutelako botere harremanetan oinarritutako sistema bat izan, askoz errazagoa delako goian dagoenarenarendako boterea erabiltzea. **Indarkeria matxistak diskurtsoak aldatzeko modu ugari ditu?** Oposizioko alderdiak genero indarkeriaren negazionista hutsak ziren 2004an. Gaur egun ez digu hori alderdi politiko batek ere esaten bere kartel berdearekin.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Gazte jatorrek esaten digute. Desinformazioaren munduan, gezurrezko albisteak bolo-bolo dabilta. Gazteak eta ez hain gazteak zailtasun handiak ditugu sareetan "ur edangarria" opatzeko, egiazko informazioa aurkitzeko. Sareak, algoritmoak eta horiek guztiak patriarkatutik antolatuta daude pentsamendu kritikoa *off* sakatzeko, eta halako mezuak erreproduzitzeko automatismoan erortzeko. Mezu arrazistak, genero indarkeria ukatzen dutenak... horrelakoak zabaltzeko play-ri eman diotela dirudi. Jendarte feministen aldeko legeak beraien zigorgabetasunaren kontra doaz. Orain arte sentitu dute beraien desira asetzeko, "ligatzeko" nahi zutena egin zezaketela. Eta orain konaturatzen ari dira horretarako

komunikazio kode batzuk behar dituztela, onarpena erdigunera eramane dugula. Negazionista horiek esaten dute: "lege horiek gure mundua aldatzera heldu dira. Nola da posible orain feministek onarpena eman behar dela esatea? Ez da posible". Horregatik hainbeste zalaparta onarpenaren harira. Lehen onarpenik gabeko, indarkeriaz betetako praktikak izaten genituelako harremanetan. Orain iritsi da momentu bat esan dela: "Ez! Bukatu da! Hemendik aurrera gure hitzak, gure desirak ere lekua izan behar du". Horrek nolabaiteko beldur eta tentsio puntu batera eramane gaitu eta hor dauzkagu hainbat txio, makina bat jende lege horren kontra, soilik bai da bai legearen kontra, esanez: "gizonen kontra feministen arma bat da". Be-

rriro ere 2004ko erresistentzia gogorarazten du. Nahiko harri-garria da gertatzen ari dena. Nola da posible ukatzea indarkeriak generoa duela edo esatea: 'kalean ere ezin da ligatu dena sexu indarkeria delako'. Gehien beldurtzen dituen da zigorgabetasunaren kontra goazela, zigorgabetasuna hausten ari dela. "Beldurra bandoz aldatu behar du" esaten zenean jende oso haserre zeuden lelo horrekin. Hogei urte beranduago Gisele Pelicotek Frantzian esaten duenean "lotsak bandoz aldatu behar du", orain guztiok gaude horretara, fokuak hor egon behar du. **Patroi matxisten bueltaren aurrean, hezkuntza?**

Sistema irauli eta dugun indarkeria guztiari aurre egiteko dugun arma bakarra prebentzioa izan beharko litzateke. Hezkuntza, diru publikoa. Ardura politikoak daude horretan guztian. Hori ere seinalatu behar dugu. Goazen jendarte feminista bat eratzera, baina elkarrekin. Horretarako, behar ditugu erantzun politikoak, diru publiko pila eraikuntza hori guztia iraultzera, prestakuntza eta prebentzio tailerretara bideratu behar dira. Sistema benetan bukatzea nahi badugu dirua oinarrian, hezkuntzan, jarri behar da. Lehentasunak hor daude. Zeinek erabakitzen du indarkeria matxista pairatzen dugunon bizitzak zenbat balio duen? Badirudi gizonezkoenak baino gutxiago balio dutela. **Indarkeria matxistaren forma zaharberriak adin guztietan eragina izango dute, ez?**

Nola iritsi da indarkeria hori? Zer forma hartu du? Nola moztu da? Nola sortu da? Gazteenganako sarbidea sare sozialak lirateke. Baina, esaterako, 80 urte pasako emakumezko batengan sareek ez dute halako eraginik izan. Baina zaintzaren inguruan eratutako bere generoaren eraikuntza hori guztia hor du, hor dago eragina. Edo 40 urtekoen tartean agian laneko sexu jazarpena dago bolo-bolo. Adin tartean arabera ikusi behar da indarkeriak non eragiten duen: osasunean, lanean, hezkuntzan, parkean... Hainbat esparru daude.

"SISTEMAREKIN BENETAN BUKATZEA NAHI BADUGU DIRUA HEZKUNTZAN JARRI BEHAR DA"



Itaiak indarkeria matxista borrokatzera deitu du. ARTXIBOA

Itaiak dio indarkeria matxista "areagotzen" ari dela

Hari aurre egiteko mobilizatzeko deia egin du emakumezkoen antolakunde sozialistak

SAKANAKA

Sakanako Itaiak matxismoa "areagotzen" ari dela esateko hainbat datu eman ditu: aurten bost erailketa matxista izan dira eta saiakera berri bat Trintxerpen, sexu esplotazio sare ugari, hamaika sexu eraso hainbat txokotan, joan zen urtea ia 24 eraso egunero... "Hori izaten ari da Euskal Herriko errealitatea azken hilabeteotan. Zifra horiek benetan kezagarriak dira". Emakumezko antolamendu sozialistatik galdera egin dute: biolentzia eguneroko albiste den bitartean, nola liteke inoren buruan ez egotea eta geroz eta inpaktu sozial gutxiago edukitzea?"

Itaiako kideek eraso kopuruen hazkundeari erreparatzeaz aparte "ideia zein jarrera matxisten normalizazio eta hedapenari" ere begiratu diote. Azaldu dutenez, "ultraeskuinak testuingurua baliatzen ari da ezinezona kanalizatu eta euren mezu matxista eta erreakzionarioak hedatzeko. Erakundeetan Voxen moduko alderdien bidez adibide ugari entzun daitezke. Sare sozialetan eta kaleetan, bereziki, gazte sektorean, geroz eta gehiago dira matxismoaren existentzia ukatzen dutenak, indarkeria matxistaren kontrako legeek gizonezkoen posizio zapaldu batean uzten dituela esaten dutenak, edota salaketa faltzuen diskurtsoa zabaltzen eta biktimizazio posizio batean kokatzen direnak". Itaiakoen iritziz, "hori bera esaten dutenek erasoak erabiltzen dituzte diskurtso arrazistak elikatu eta etorkinen kontrako beldurra zabaltzeko. Fokuan

jartzen dute etorkinen kriminalizazioa eta segurtasun faltaren ideia, alde batera utziz indarkeria matxistarekiko kezka. Horrela, indar polizialen eta politika autoritarioen indartze bat justifikatzen dute". Beste galdera bat egin dute: "nola babestuko gaitu poliziak haiek direnean erasotzen gaituztenak?" Nabarmendu dutenez, "Espainiar estatuan udako erailketa matxisten %15a poliziek burutu dituzte, eta datua larria bezain esanguratsua da, kontuan izanda poliziaz gizaratearen %0,3a besterik ez dela".

Nabarmendu dutenez, "argi izan behar dugu indarkeria matxistaren ukazioak biolentzia bera justifikatzen du. Beraz, emakume langileok pairatzen dugun egiturazko zapalkuntza betiketoz du, geure eskubide orokorretan atzerapauso handia eraginez". Itaiako kideen iritziz, "indarkeria matxista behin betiko bukatzeko ezin gara lege aldaketa hutsera mugatu. Agerian geratu da ezker instituzionalak funtsezkoak eta eraginkorrak diren aldaketak egiteko gaitasunik ez duela. Gizarte osora zabalduko den kontzientziazio lana egin behar dugu, ideia matxista zein faxistei aurre egingo dien indarra antolatuz". Azpimarratu dutenez, "matxismoari aurre egiteko modu bakarra, zapalkuntzarik gabeko gizarate antolaketa berri baten, sozialismoaren, eraikuntza da". Horregatik, astelehenean mobilizatzera deitu dute, eta urte osoan matxismoaren kontra borrokatzera ere.

guaixe
irratia 107.3FM

AZAROAK 25-29

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Azaroak 25 Asier Estarriaga
Behobia- Donostiaz

Azaroak 26 Brotes de Encina talde txikia
eta Mari Romeroren azken liburua

Azaroak 27 Bertso sailoa (Bertsoa.eus)

Azaroak 28 Goiatz Labandibar
'ZOO' liburuz

Azaroak 29 Agenda berezia

Gizonei erantzukizuna hartzeko deia

Indarkeria matxistaren modu guztiei aurre egiteko eta kaleak hartzeko beharra azpimarratu ditu Euskal Herriko mugimendu feministak, eta ibarrean, astelehenerako, bost deialdi egin ditu

SAKANA

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, mobilizatzeko deialdia egin du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Manifestazio eta elkarretaratzeak *Ez bazara konponbidea, arazoa zara* lelopean egingen dira. Haren bidez aldarrikatuko dute denek, bereziki gizonezkoak, ardurak hartzeko garaia dela.

Euskal Herrian bost emakumezko erail dituztela gaztigatu dute. Mugimendu feministako kideek azpimarratu dutenez, "egunerokoa erabat normalizatuta dauzkagu erasoak, borxaketak, beldurra, erailketak..." Indarkeria matxistak forma ugari izan arren, "erro bakarra du, eta, gainera, gero eta gehiago ari da hedatzen: sistema heteropatriarkal, kapitalista eta kolonial honek forma berriak hartzen ditu bizirauten jarraitzeko". Gaineratu dutenez, "sexu indarkeriaren gorakada kezkarria, indarkeria ekonomiko, mugak eta irregularizazio egoerak, gorroto diskurtsoen gorakada, estigma soziala, komunikabideetan egiten den indarkeria matxista kasuen trataera bortitza, zaintzen banaketa desorekatua, sare sozialetako misoginia eta jazarpen anonimoa ez dira kasu isolatuak eta emakumeen osasun fisiko eta psikologikoan ondorio larriak dituen egiturazko indarkeria baten parte dira", azpimarratu dute.

Gizonezkoiei deia

Feministek deialdia egiterakoan azaldu dutenez, "gizon gehienek



Azaroaren 25eko mobilizazioetan parte hartzeko deialdia egin dute feministek. UTZIA

"INDARKERIA MATXISTAK ERRO BAKARRA DU, GAINERA, GERO ETA GEHIAGO ARI DA HEDATZEN"

oraindik ez dute konpromisorik hartu konplizitatea, justifikazioa eta indarkeria matxista desagerrarazteko eta salatzeke". Horregatik, manifestazioko leloa haiei zuzenduta dago. Zenbait adibide ere eman dituzte: "arazoa zarete eraso bat jasaten dugunean gure hitza zalantzan jartzen duzuenak; arazoa zarete lagunartean txisteak eta iruzkinak moztzen ez dituzuenak; arazoa zarete erasoren bat jasan dugunean justifikatzen eta errua guregan jartzen duzuenak; arazoa zarete erasoak seinatu bai baina zuen joerak

zuzentzen ez dituzuenak; arazoa zarete feministok urteetan salatzen gabiltzan indarkeriaren aurrean erantzukizunik hartzen ez duzuenak".

Mugimenduko kideek erakunde inbertsioak eta prebentzio programak eskatu dizkiete hezkuntzan inbertsioa, hainbat esparru anitzetako profesionalen dako prestakuntza, erasotzaileak diren baliabide erreal eta efektiboak. Azpimarratu dutenez, "ez dugu polizia gehiago behar segurtasunaren izenean, ez dugu kontrollean inbertsio nahi". Aldi berean, hedabideek indarkeriaren erreproduzioan "funtsezko" egiteko dutela gaineratu dute. Sare sozialetan ere ohar-tarazi dute. Eta, bukatzeko, mugimendu feministako kideek eraikitzen jarraitzeko deia egin dute: "aliantza feministetatik, antolakuntzatik, borrokatik".



Sakanako udal ordezkariak eta teknikariak kanpainaren aurkezpenean. UTZITAKOA

Emakumeak eta haurrak beldurrik gabe bizitzeko aldarria

Udalek indarkeria bikarioaren kontra egin dute, "matxismoaren muturreko adierazpena da"

SAKANA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, udalek erakunde adierazpena onartu dute. "Beste behin ere, emakumeen kontrako indarkeria matxista mota guztiak irmoki gaitzetsi" dituzte, "indarkeriarik gabeko mundu bat" aldarrikatu dute, "non emakumezkoak zein haurrak beldurrik gabe, mehatxurik gabe eta beren eskubideen berme osoarekin bizi daitezkeen". Izan ere, indarkeria bikarioari erreparatu diote toki erakundeek aurten eta *Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da* leloa aukeratu dute.

Azaldu dutenez, "erasotzaileak bere gertuko jendea erabiltzen du, batik bat seme-alabak, emakumezkoari ahalik eta kalte emozional handiena eragiteko. Indarkeria mota horrek aztarna ezabaezina uzten du jasaten dutenengan, eta, kasu askotan, neska-mutilen heriotza eragin dezake". Nabarmendu dutenez, "indarkeria mota horretan, agerian geratzen dira indarkeria matxistaren ezaugarri diren botere-dinamikak: erasotzaileek ez dituzte beren haurrak izaki independente gisa ikusten, bikotekideen gaineko kontrolaren

hedapen gisa baizik". Gaineratu dutenez, "indarkeria bikarioak emakumezkoak etengabe zalantzan jartzen dituen gizarte baten konplizitatea du, emakumezkoak agintetik kendu eta haien hitza zalantzan jartzen duena"

Udalek ezinbesteko jo dute beraien "politikak eta baliabideak indartzen jarraitzea indarkeria matxista mota guztiei aurre egiteko. Horregatik, bost konpromiso hartu dituzte. Aurrena, indarkeria bikarioari buruzko berariazko sentsibilizazio kanpainak sustatzea, indarkeria mota hori ikustarazteko eta herritarrek haren ondorio suntsitzaileen inguruan kontzientziatzeke. Bestetik udal profesionalen prestakuntza indartzea indarkeria bikarioaren kasuak antzeman eta modu goiztiar eta eraginkorrean jokatu ahal izateke. Horrekin batera, babes integralko neurriak bultzatzea, emakumeendako eta haien seme-alabendako, dituzten beharrak kontuan hartuta. Aldi berean, gobernuaren eta udalen arteko ekintzen koordinazioa sustatzea. Eta, azkenik, tokiko berdintasun politiketan indarkeria bikarioaren ikuspegia txertatzea, indarkeria.



EGOKI

Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





ASTEKOA

ANE ZELAIA RUIZ DE EGINO

Komunak

Komun hitzaren definizio desberdinak daude, baina hau hartuko dut: "Komun: etxe eta leku publiko askotan egoten den gela, behar fisiologikoak asetzeko".

Definizioak azaltzen duen bezala beharrak asetzeko leku bat da, baina beti ere ez da publikoa, etxetik kanpo direnak gehienetan pribatuak izaten dira. Orokorrean sartu baino lehen bi ate egoten dira eta hauetan atean desberdintzeko marka bereizgarri bat egoten da. Marka horiek, batzuetan pertsona bat soineko batekin irudikatzen dute, beste batzuetan bi hankekin. Besteetan "Bla,bla,bla,bla" ate batean eta "bla" bestean.

Kafetegi batean lan egiten dut nik eta bertako komuneko ateetan ez da ezer ageri. Komunera joaterakoan parez pare dagoena komun handia da. Honek leiho zabal bat du, komun zuloa eta fardelak aldatzeko altzari bat. Txikiak berriz, ez du leihorik, argi artifiziala du eta komun zuloa nahiko justu sartzten da.

Kafetegian ordu asko ematen ditut eta harrizten nau gizon eta emakumeak komun desberdinetara sartzten direnean. Gizonek komun txikia aukeratzeko dute gehienetan, eta emakumeek berriz berdin zaie nora sartu. Zergatik izango da? Akaso fardel altzairua ikusi eta ez dira interpelatuak sentitzen? Auskalo.

Bitartasun honen barnean identifikatuta senti gaitezke, marka batekin edo bestearekin, baina badakigu nora sartu pixa egitera. Bitartean, etxetik kanpo komuna erabiltzea infernu bat izan daitekeen pertsonak daude. Jabetu gaitezen gure pribilegioez eta desjabetu ditzagun komunak.

GUTUNA

Valentziatik bueltan

AITOR HERNAIZ ORMAETXEA

Astebete bada Valentziatik bueltatu nintzela. Larrialdi zerbitzu bateko kide bezala bertan laguntzeko aukera izan nuen eta ez nuen bitan pentsatu. Han ikusitakoak guda eszenatoki baten antza ikaragarria zuen. Kaleak txiki-txiki eginda, zikinkeria

nonahi, errepideak kolapsatuta, jendea kaletik erruz, gora eta behera... Sirena hotsak ziren atzetik aditzen zen musika doinua. Egoera katastrofikoak zen, inongo zalantzarik gabe. Larrialdi zerbitzuak izan gara protagonistak neurri handi batean, eta lan handia egin dugu. Erruz egin dugu lana. Euskal Herriatik joandako suhiltzaile zerbitzuak ziren han, baina baita Espainiatik joandakoak ere, bakoitzak bere

HARA ZER DIEN

Nirekin jolastu nahi? Familian

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Gure txikiarekin jolasten gara? Badakigu zein garrantzia duen honek? Jolasa haurren hizkuntza naturala da, mundua esploratzeko, ikasteko eta komunikatzeko balio diena. Haurren garapenerako funtsezko esparru bat da, eta horregatik aisialdirako modu bat baino askoz gehiago da.

Ez, etxeko txikiak ez dira besterik gabe jolasten helduek baino denbora libre gehiago dutelako; horrelako jarduerak beharrezkoak dira eta ia jaiotzatik sortzen dira, baldintza egokiak izanez gero.

Seme-alabekin jolastea opari handia da, bai beraiantzat eta bai guretzat, onura nabarmenak ekartzen dizkiguna. Horrela adierazten digute gure denbora eskaintzen diegun bakoitzean. Haiek dibertitzea eta gozatzeko, haurtzaroko behin-betiko oroitzenak eraikitzea da.

Egun, seme-alabekin jolasteko modalitateak aldatu dira, mota

guztietako tresna teknologikoen erabilera sartu dira gure aisialdian eta horiek ez dute beti aukera ematen familia osoak aisialdi momentu goxoak partekatzen.

Milaka jostailuren iragarkiak eta mota eta prezio guztietako jolasak ikusten hasi gara garai honetarako. Ez da erraza joko egokiak aukeratzeko eta zer erosi behar dugun jakitea. Jostailu bat erostea ekintza arduratsua izan behar du, non helburua umearen ongizate pertsonala eta soziala eta garapen osasuntsua den. Ongi erabakitzeak, gure aukerak epe luzera ekarriko dituen onurak aurreikusitako behar ditugu: ikaskuntza, sormena, trebetasun sozial eta emozionalak estimulatzen dituzten jostailuak lehenetsiz, eta aldi berean, jasagarriak eta ingurunearekiko arduratsuak badira, hobe.

Jostailu edo jolasak aukeratzeko garaian, zenbait ezaugarri aztertu beharko

ditugu, besteak beste: adina, sustatzen dituen trebetasun motak, segurtasuna, kalitatea eta iraunkortasuna.

Elkarrekin jolastea modu bikaina da familiako kideek elkar hobeto ezagutzeko. Komunikatzeko tresna paregabea da guraso eta seme-alaben arteko konfiantza eta harremanen egonkortasuna bultzatuko ditu. Horretaz gain, pertenezko sentimendua sortzen laguntzen du eta emozioak identifikatzen eta kudeatzen laguntzen digu. Jokoa tresna bat da baloreak transmititzeko garaian: errespetua, enpatia, norbera eta besteen onarpena, elkartasuna, berdintasuna, lan taldea...

Jostailu on bat, ez da denbora pasatzeko objektu bat soilik, baizik eta irakatsi, inspiratu, ikasteko eta dibertitzeko tresna bat.

Eta gogoratu! Kontua ez da jostailu ugari erostea umeekin jolastea baizik!

GUTUNAK: Astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakzioara.
Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus


www.guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

"Oldarraldia modan dago, baina aspaldikoa da"

MAIALEN PELAEZ, NEREA MAZKIARAN ETA EDURNE SOMOCURCIO EHEKO KIDEAK Herri libre bat, euskaratik eta euskaraz. Aldarri hori zabaltzeko hitzorduak zehaztuta ditu Euskal Herrian Euskaraz eragile euskaltzaleak

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Euskal Herrian Euskarazek (EHE) euskararen errepublika aldarrikapena zabalduko du hainbat herritan hurrengo astetan.

Euskararen gaur egungo egoeraren zein irakurketa egiten du EHEK?

Maialen. Duela urte batzuk baino hobea, baina egiteko asko dago. Gobernuak gauzak egiten ari dira, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), baina oso poliki. EAEn pausoak bai, baina ez dira egunerokotasunean esaten ari direnak. Eraso pila bat daude. Nafarroa oraindik herrialdea hiru zatitan banatuta dugu. Eta Iparralden ba...

Kristalezko sabaia du euskarak?

M. Bai. Nabarmena da euskarak etsaiak dituela eta euskaldunok zapalkuntza bat sufritzen dugula. Euskararen kontrako oldarraldia orain modan dago, baina aspaldi sufritzen ari gara. Urte pila daramagu bizirauten, Euskal Herri euskaldun bat lortzeko aurrera egin nahian, baina, egia da ezin dugula. Sabai hori hor dago. Euskararen etsaiei ez zaie interesatzen guk euskaraz bizitzea. Arazoak genituen eta orain gehiago heldu dira oldarraldia-ekin.

Oldarraldia, zertaz ari zarete?

M. Lehendik zapalduta geunden, urte pila daramagu bizirauten, aurrera egin eta Euskal Herri euskaldun bat lortzeko. Oldarraldia ez da auzi berri bat. Oraingo berritasuna da onartutzat eta euskararen alde lortuta geneuzkan gauza batzuk atzera botatzen ari direla, zalantzan jartzen ari direla edo atzera pausoak ematea planteatzen ari direla. Zapalkuntza hori ez da ausazkoa, Espainia eta Frantziako estatuak, eta haien eskutik hainbat alderdi, sindikatu eta hedabide, beraien asimilazio prozesua egin nahian dabilta, lortu duguna atzera bota nahian. Oldarraldiaren aurrean koldarraldia ematen ari da. Epaitegie-



Nerea, Maialen eta Edurne Altsasuko hitzordurako deialdia egiten.

"EUSKARAREN ALDE LORTUTA GENEUZKAN GAUZA BATZUK ZALANTZAN JARTZEN ARI DIRA"

tatik etortzen denaren aurrean eragile euskaltzaleak esaten ari dira ez dutela gatazkarik sortu nahi. Beraz, ez dute lanpostua euskara eskakizunarekin aterako. Hor arrisku bat dago: lanpostuetan lortutako euskara eska-

kizunak, gatazka ez sortzeagatik ez eskatzea. Izugarritzko atzera-pausoa litzateke.

Horren aurrean zer?

M. Harroaldia. Euskararen alde borrokatzea, indartzea.

Edurne. Euskaltzaleak saretzea. Nahiz eta pauso txikiak izan, edo auzoan, herrian edo ingurukoekin izan, euskara sustatzen duen hori guztia aurrera eramane, euskaldun izatearen harrotasunetik.

Nerea. Eta jendea mobilizatzea. **Jendartearen kontzientziarik bada?**

M. Hori landu behar da. Ekintze-kin, tokian tokiko borroka piz-

tuz eta jendea mugituz lortuko dugu Euskal Herri euskalduna. E. Nik sentitzen dut batzuetan beste borroka batzuk borrokatzen ditugula, eta ahazten dugu zein hizkuntzatan borrokatu behar dugun. Lan duinarean aldeko borroka zergatik egiten dugu erdaraz? Edo zergatik komunikatzen gara gu erdaraz halako esparruetan? Hor bigarren edo hirugarren plano batean uzten dugu euskara. Jende horri galdetuz gero euskalduna dela esanen dizu. Jende oso gutxi dauka lehen hitza euskaraz esateko kontzientzia, gehienak hezkuntzan edo hizkuntza eskubideen aldeko taldeetan gaudenak gara.

Zergatik euskararen errepublika?

M. Benetan euskaraz biziko garen Euskal Herri hori lortzeko bidea hori dela uste dugu: euskararen errepublika. Horretarako independentzia behar beharrezkoa da.

Nola egingen duzue hori?

E. Abenduaren 7an, 18:00etan, Durangon nazio manifestazioa deitu dugu *euskaraz bizitzeko, euskararen errepublika* lelopean. Haren aurkezpena egiteko, bere kasua azaldu eta kontzientzia hori sortzeko Gorka Torre etorriko da Altsasura azaroaren 27an, 19:00etan, Gure Etxea erai-kinkeko lehen solairuan.

Zein da Gorka Torre?

N. Baionako EHEko kidea da eta irailaren 10ean epaitu eta 3.268 euroko isuna jarri zioten. Iparraldeko ikasleei Baxoa proba euskaraz egiteko aukera ez dietela eman salatzeko pintaketa egiteagatik eta euskara zapaltzen dutenean Unesco mutu egoten dela salatzeko ekintzaategatik. Gainera, epaiketean Torreri ez zioten euskaraz deklaratzeko utzi. Bere kasua kontatzen ari da, eta isuna ordaintzeko dirua biltzen.

Hondakinen Prebentzio Astea hemen da

Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak hezkuntzaren eta tailerren bidez eragin du

SAKANA

Hondakinen Prebentzioaren Europako Astea ospatzen ari da azaroaren 16tik 24ra. Hori dela eta, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzeko ekimenak prestatu ditu: arropa berrerabiltzeko tailerrak egin dira bi ikastoletan, paper birziklatua egitekoak dira Andra Mari ikastolan, helduek arropa apaindu eta konpontzeko brodatu tailerra izan zuten eta pintxo pote jasangarria egin da.

Mankomunitateko sortutako hondakinak behar bezala tratatzeak dakartzen onurak azpimarratu ditu, "elementu aprobetxagarrien iturri baliotsuak izan daitezkeelako". Azaldu dutenez, herritarrek "zirkulu ekonomia-aren motorra izan daitezke, baina horretarako hondakinak behar bezala prestatu eta kudeatu behar dira". Horretan laguntzeko, astean zehar, fruta dendetan sareak banatuko dituzte, fruta eta barazkiak erosteko orduan plastikozko poltsen erabilera saihesteko. Eta gastronomia elkarteetan ontzi konpostagarriak banatu dituzte, zaborretan bukatzen den janari kopurua murrizteko, eta hondakinak bereizteko materialak ere.

BIKAIN GARAJEA



**Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu



EgurRE

ETXERA ERAMATEKO EGURRA
Leña a domicilio

**Kalitatezko egurra
eta pelleta**


ETXEKO ATERAINO

662 11 77 45

**PORROTX
ETA MARIMOTOTS**

**Abenduaren 3an
17:00etan
Irurtzungo kiroldegian**

**Sarrerak salgai:
Pikuxar
Estankoa
Martxueta
Maimur (Leitza)**



Udazkeneko Jaki Bilketa Handirako dena prest

Jasotakoaren zati bat Goi Mailtako Depresio Isolatuak kaltetutakoaren alde izanen da

SAKANA

Nafarroako Elikagai Bankuak jaki bilketa eginen du supermerkatu eta dendetan gaur eta bihar. Bankua irabazi asmorik gabeko fundazioa da eta Nafarroako behartsuenendako elikagaiak biltzen eta banatzen ditu, eta elikagaien alferrik galtzearen kontra borrokatzen du, bere jardueraren bidez eta sektore guztien gizarte sentsibilizazioaren bidez, bereziki gazteen artean. Joan zen urtean 25.551 nafarri eman zien jaten, 9.037 familiari. Haiei, guztira, 3.640 tona jaki banatu zien. Asteburuan jasotakoa Nafarroan premia dutenei eta Valentziako kaltetuei bidaliko die. Boluntario gisa lan egin nahi duenak bancoalimentosnavarra.org webgunearen bidez izena eman dezake. Jakiez aparte, bankuak diru ekarpenak onartzen ditu, dendetako kutxetan edo Bizumeko 00262 kodea erabiliz egin daiteke.

Altsasun jasotakoa Paiportara eraman zuten

Zuzenean banaketa puntu pare batera eraman eta herritarren artean banatu zuten

ALTSASU

DYArean Altsasuko bajaran Valentziako kaltetuendako produktuen bilketa egin zuten joan zen astean hiru egunez. Hura guztia hiru furgonetetan sartu eta asteartean eraman zuten Valentziara. Tartean ziren Flores etxeko txistorrak eta La Vasco Navarrako gaztak. Oraingoan Paiporta herrira eraman zuten. Han boluntarioek kudeatzen duten lokal batean utzi eta utzi bezain laster banatzen hasi ziren. Altsasun jasotakoaren beste zati bat beste lokal batera ere eraman zuten, handik etxeetara bizikletaz banatzen dituzte gauzak.

Dagoeneko Altsasutik Valentziara dozena bat furgoneta eta kamioi bat bete produktu joan dira. Bidaletako gastuak 1.900 eurokoak dira, boluntarioek ordaindu dituztenak. Udalek lagunduko zutela adierazi diete boluntarioei, baina oraindik ez dute laukorik ikusi.

"Orain espezializatutako enpresen txanda da"

KOLDO MENDILUZE URIA SUHILTZAILEA

Catarroja herrian egon zen azaroaren 14tik 17ra. Nafarroako suhiltzaileek Valentziara bidali zuten azken lantaldeko kidea izan zen

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Makina bat larrialdi zerbitzutako langile izan dira Goi Mailtako Depresio Isolatuak Valentzia jo ondoren.

Suhiltzaileak zuen ekimenez edo gobernua bidalita joan zarete Valentziara?

Tanta hotzaren ondoren beharra ikusi zen. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Suhiltzaileak erakundeak erabaki zuten laguntza bidali behar zela. Valentziako Generalitateari laguntza eskaintza bidali zioten eta hark baimena emandakoan hasi ziren hemengo suhiltzaileen lantaldeak hara joaten. Ni azken lantaldean joan nintzen. Aurretik sei bat lantalde egon ziren. Bakoitza 30 edo 32 kidez osatuta. Patxi Calleiras eta Ander Vinagre suhiltzaile altsasuarrak ere han egon dira, oker ez bago azaroaren 8tik 11ra arte egon zen lantaldeko partaide ziren. Gure lan ordutatik kanpo egon gara Valentzian.



Suhiltzaileak ura kentzen gero autoak atera ahal izateko. UTZITAKOIA

"GAINERA, HAN EURI URAK ETA ETXEETAKO UR BELTZAK SARE BAKARREAN ELKARTZEN DIRA"

Zuen lan txandak desberdinak dira.

Guk berez 24 ordu jarraian egiten dugu lan. Berez, bi egun dira, zeren 08:00etan sartzen gara eta hurrengo eguneko 08:00etan ateratzen gara. Eta hiru egunetara berriro lanera joaten gara. Gure ordutegiak Nafarroako funtzionarioen ordu kopuru bera du, baina beste modu batez antolatuta. Hiru egun horietako tartean egon gara Valentzian.

Bidaia zerbait eramateko baliatu zenuen?

Lehen lantaldeak hamasei ibilgailu eraman zituen, eta azken lantaldekook denak bueltan ekarri genituen igandean. Eraman ziren lur orotariko ibilgailuak eta baso suteetan erabiltzen diren kamioiak. Azken horiek dituzte ur punpak eta zurgaketak egiteko motoponpak dituzte. Ura ateratzeko material ugari eraman zen ere. Nafarroako Suhiltzai-

leetan aritzen diren medikua eta erizaina ere lantalde bakoitzarekin joan ziren, zauriren bat egiten bagenuen gu zaintzeko.

Zein lanetan ibili zineten?

Gure lantaldea azkena zen. Ordurako lurpeko pasak nahikoa drainatuak zeuden, eta, gutxi gorabehera, autoak tuneletatik aterata zeuden. Gu garajeetatik lokatza eta ura ateratzen ibili ginen, baita autoak ere garajeak garbitu ahal izateko. Kaleak garbitzen eta karriketako estolderiatik ura atera eta garbitzen ere ibili ginen, han lokatza, ura eta kaka pilatzen baitzen. Estolderia pixka bat garbi izan behar dute, bestela bizilagunek ezin dute bizi normala egin. Gainera, han euri urak eta etxeetako ur beltzak sare bakarrean elkartzen dira. Dena lokaztean, hodiko edukiak atzerantz egiten du eta etxeetan sartzen da. Lan asko dago han egiteko.

Non egon zineten?

Nafarroako Suhiltzaileei Catarroja herria egokitu zitzaigun. Sektoreka antolatuta zegoen eta guri bat eman ziguten eta han lan egin genuen. Gurekin beti bi ofizialorde egoten ziren eta lauzpabosteko taldetan banatu-

0 km SAKANAKO GIDA

SAKANAKO GIDAREN PARTE IZAN NAHI DUZU?

HARREMANETARAKO:
948 564 275 | 619 821 436 | PUBLIZITATEA@GUAIXE.EUS (ITZIAR)

<https://guaixe.eus/gida/>

KOLABORAZIOA

Mastodonen, kakaztearen aurka

GALDER GONZALEZ LARRAÑAGA


Sentitzen dut nire lehenengo kolaborazioa publizitate kutsuarekin hastea, baina une egokian harrapatu nau, Mastodonen X sare sozialak bizi duen egoeraz eztabaidan. Elon Musk ultra-(eskuindar eta aberatsak) Twitter erosi zuenetik jada ikusten zen joera azeleratu da, bereziki Donald Trumpek hauteskondeak irabazi eta Musk bere taldean jarriko duela iragarri zuenetik. Ez da izan azken tanta, baina bai nahiko nabarmena jendea alternatiba bila hasteko.

Mastodon sare sozial deszentralizatu bat da, Twitter/X edo Facebook ez bezala. Hau da, ez dago korporazio edo bilioidun baten eskuetan, baizik eta zerbitzua sortu nahi duten milaka pertsonen ordenagailuetan. Aukera aniztasun horrek jende asko atzera bota izan du, baina berez gauza sinplea da: euskalduna bazara, *mastodon.eus* webgunera joan, eta beste edozein gunetan bezala erregistra zaitezke. Bertan ikusiko duzu *mastodon.eus* komunitatean gauden pertsonak, baina hortik kanpo

daudenak ere jarraitzeko aukera izango duzu. Teknikoki, federazio deritzo sistema horri; eta fediberto sare osoari. Baina, berez, ez duzu ezagutza teknikorik behar kontu bat zabaldu eta jendearekin sartzeko.

Azken urteotan asko aldatu da Internet. Beno, agian ez dio inoiz ere aldatzeari utzi. Baina badago fenomeno interesgarri bat, Cory Doctorowek "kakaztea" deitu duena, ingelesez "enshittification", azken urteotan areagotu dena. Doctorowek berak nik baino hobeto azalduko du:

"Horra nola hiltzen diren plataformak: lehenik eta behin, beren erabiltzaileekin onak dira; gero, beren erabiltzaileez abusatzen dute beren negozioetako bezeroentzat gauzak hobetzeko; azkenik, negozioetako bezero horietaz ere abusatzen dute, balio erantsi guztia berentzat, jabeentzat, akziodunentzat gordetzeko. Orduan, hil egiten dira hasieran erabiltzaileentzat baliotsu ziren zerbitzuak. Enshittifikazioa, kakaztea, deitzen diot horri, eta itxuraz



saihestezina den ondorio bat da, plataforma batek balio erantsia esleitzeko, monetizatzeke, duen erraztasunaren konbinaziotik datorrena, 'bi aldeko merkatu' baten izaerarekin konbinatuta, non plataforma bat erosle eta saltzaileen artean ezartzen den, alde bakoitzak besteari ahalik eta diru gehien atxikitzen dion, bien artean igarotzen den diruaren zati gero eta handiago bat harrapatuz."

Sistemaren parte da: norbaitek zerbitzu bat sortzen du Interneten, eskala handian inplementatzeko dirua eskatzen duen zerbitzu. Demagun, Amazon bezalako online denda bat. Hasieran milioika produktu eskainiko ditu, kostutik behera, dumpinga egiten. Produktuaren saltzaileak ez du dirurik galtzen, Amazon da bere zerbitzua eskaintzen, hau da, etxera bidaltzen, dirua galduko duena. Amazonen akzionistek galduko dute, hasiera batean, dirua. Behin milioika pertsona edukita, saltzaile zein erosle, bidalketa gastuak gehitzen joango dira, baina premium zerbitzu bat eskainita: Amazon Prime.

Primekin bidalketak doan dira eta, gainera, telebista kanalak dituzu (hau da, ez duzu izango zure harpidetza kentzeko arrazoi handiegirik). Baina hori ez da negozio eredu: salmenta kopurua hain handia izanda, eta denden sarea suntsitu duzunez, posible duzu dendariei dirua eskatzea. Noski, dendariak ez dute zertan ordaindu behar, baina euren artean lehiatzen hasiko dira, ea nork egiten dion eskaintza hobea ez erosleari, baizik eta bitartekaria den Amazoni. Eta Amazonek sarituko ditu berari diru gehien ematen dieten dendak, bere produktua eskaintzeagatik publizitatea ordaintzen dutenak. Hasierako zerbitzua kakaztuta dago horrela: dirua lortzen duzu eroslearen harpidetzaren bidez eta, aldi berean, saltzaileak zuri produktuak erakusteko ordaintzen dizunetik.

Doctorowek dio kakaztea ekidinezina dela. Gertatu dela Amazonen, gertatu zela Facebooken (non publikazioak zigortzen dira kanpo estekak jartzen badira, adibidez), gertatu dela Googlen (non Adimen Artifizialak eta publizitateak bilaketa ezinezko

egin duten jada). Gertatzen ari dela TikToken, Tinderren, Uberren. Plataformen kapitalismoaren funtzionamenduak hasieratik du harra barruan, kakaztera eramango duen jaiotzeko bekata.

X sarean (lehenengo Twitter) kakaztea Muskek bilatutako zerbitzu bat da. Eskuin muturraren, negazionismoaren eta testosteronaren bilaketa etengabea egin du. Algoritmoa aldatu du Trumpen alde eta zientziaren aurka. Ez du suntsitu: bere helburu politikoetarako tresna bilakatu du.

Bitartean, Mastodon hazten ari da, kakaztera eramango duen jatorrizko bekatu gabe: irekia da, ez dago zentralizatu eta, gainera, euskaraz dugu. Zatoz, goxo egongo zara.

DUELA 25 URTE...



Aspaldi paseak ziren etxe bakoitzean auto bakarra zegoen garaia, eta etxe bakoitzean hainbat zeuden ordurako Arbizun. Jendeak herritik kanpo lan egiten zuenez, lanera joateko behar zuten. Ibilgailu berri ugari zeuden herrian. Erregistroaren arabera arbizuarrek 428 turismo zituzten. Gainera herrian 35 motozikleta zeuden eta 74 kamioi eta lur orotarikoak.

Nafarroako Kutxa Fundazioa, erronka berriei eta kulturaleri erantzuteko erreferentziazko erakundea

Nafarroako Kutxa Fundazioak bere proiektu ezagunenaren esperientzia eta gure komunitatearen eraldaketa soziala lortzeko proposamen berritzaileak uztartzen ditu. Fundazio pribatua da, irabazi-asmorik gabea, independentea eta Nafarroa osoan presentzia izateko asmoa duena. Nortasun horrek eta elkarlaneko lan-sare batek Nafarroako Kutxa Fundazioa posizio pribilegiatuan jartzen du inpaktu eta kalitateko ekimenen eragile izateko. Nafarroako aurrerapen sozial, ekonomiko eta kulturala lan-metodologia propio baten bidez lortzen diren helburuak dira. Tresna dinamizatzailea da, eragiten duen lan-eremu guztietan, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzeko. Bere proiektuen jardueragatik aintzatsitako erakundea da, baina, gaur egun, ez da gauza garrantzitsu bakarra, jarduera hori nola

garatzen den ere oso garrantzitsua da. CIVICAN kultur zentroa, Isterria hezkuntza bereziko zentroa, Irati ibaia gaitasunak garatzeko zentroa, Hondarribiko udalekuak edo adinekoren zentroak bezalako proiektuak Nafarroako Kutxa Fundazioaren jardura identifikatzen duten ekimenak dira. Era berean, Innova Programa edo UAVDI bezalako lankidetzak emenak, biak "la Caixa" Funda-



zioaren eskutik, erakundearen jardura bereizten dute. Hala ere, Nafarroako Kutxa Fundazioaren asmoa, gaur egun, komunitatearentzat erreferentzia izaten jarraitzeko gai izatea da, eta, bereziki, hirugarren sektorearentzat, bizi garen unean uneko beharretara eta errealitate egokitutako lan-eredua duen erakundea den aldetik. Egungo Patronatuak 2023an onartutako Plan Estrategikoak erronka sozial berriei irtenbideak bilatzeko eta pertsonek gure lehenasunen

bihotzean egon behar dutela kontuan hartzeko helburua du. Premisa horietatik abiatuta, metodo hau entzute aktiboan, elkarlanean, berrikuntzan, independentzian, kaudimen teknikoan eta bikaintasunaren bilaketan oinarritzen da lan egiteko modu hori. Dokumentu hori, Nafarroako Kutxa Fundazioaren III. Plan Estrategikoa, lan-metodologia horren erakusgarri ona da. Gizartearen zati handi bati entzutea, hainbat arlotako 200 eragile ere, plan hau eratzeko lehen urratsa



Nafarroako Kutxa Fundazioa eta bere eragina Sakanan

Nafarroako Kutxa Fundazioak Sakanan duen eragina hainbat proiektutan erakutsi daiteke. Horietako bat Rural Domus da, Josefina Arregui klinikak eta San Juan de Dios ospitaleak bultzatutako ekimena, landa-inguruneetarako etxez etxeko arreta-eredu espezifiko bat ezartzea bilatzen duena. Eskualdeko eragileen arteko elkarlana sustatzen du, hala nola Sakanako Garapen Agentzia, Altsasu eta Etxarri Aranatzeko

EH Bilduk AHT eta zundaketak gelditzea eskatu du

Koalizioaren iritziz, "proiektuak ez du inongo justifikaziorik" eta tren sozialaren alde egin du

SAKANA

Lautadako, Goierriko eta Sakanako EH Bilduko ordezkariak agerraldi bateratua egin zuten. Oihana Olaberria Jaka Arakilgo alkateak hiru eskaera egin zituen. Alde batetik, "abiadura handiko linearen proiektua, bai eta Iruñea-Altsasu eta Iruñea-Beasain trazatuari dagozkion zundaketak eta azterlanak gelditzea". Gaineratu zuten, "arduraz jokatu eta gastua beste inbertsioetara bideratu behar da". Horrekin batera, Olaberriak eskatu zuen "aurkeztu den tren sozial baten



Hiru eskualdeetako ordezkariak.

aldeko apustu sendoa egitea. Sakanak eta Lautadak bereziki horren beharra baitute". Gaineratu zuenez, "tren sozial horrek, beti ere, trenbide sarea modernizatzea, tren bidezko salgaien garraioa bulkatzea eta gure herrietako eta eskualdeetako geltokietako konexioak eta maiztasunak hobetzea izan behar du oinarri". Azkenik, EH Bilduko kideek herritarrak animatu zituzten "zundaketak bertan behera gera daitezen eskatuz antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzera".

Otxobiko zundaketaren ondoren, koalizioko kideek jakinarazi zuten, Lakuntzako Udalak lur publikoa erabiltzeko baimen eskaera jaso du. Hau da, udalerrian zundaketa egiteko makina dermioko bideetatik ibiltzeko eskaera.

FESTAK

LIZARRAGA SAN KLEMENTE FESTAK

AZAROAK 22 Ostirala

20:00 Lizarragako ardi tripota, musikaz eta Lizarraga Kantuzekin, frontoian.
22:00 Herri afaria, Azi Iturri Txokoa elkartean.

AZAROAK 23 Larunbata

12:00 Kalejira.
12:30 Meza.
14:00 Auzatea.
17:00 Puzgarriak.
18:00 Haur eta helduendako jokoak. Ondoren, txokolatada.
20:30 Zezensuzkoa.
00:30 Trikidantz.

03:00 DJ Boletus Rumberus.

AZAROAK 24 Igandea

11:00 Lizarraga Kantuzekin kalejira, auzotik hasita.
13:30 Auzatea eta 1944ko kintoei omenaldia herriko dantzarekin.
17:30 Hodei Magoa, eskoletan.
17:30 Mus Txapelketa, Azi Iturri Txokoa elkartean.

AZAROAK 25 Astelehena.

13:00 Meza.
14:30 Jubilatuen bazkaria, Bargazpin.



Urteurren borobila

Lakuntzar ugari elkartu ziren kultur etxean larunbatean. Lakuntzako Pertzaren inguruan egiten ari diren dokumentalaren zati bat ikusteko aukera izan zuten, hain zuzen bazkide sortzaileen lekukotasunak jasotzen dituenak. Ikus-entzunezkoaren ondoren bizirik dauden sei bazkide sortzaileak eta hilda dauden hemezortzi bazkide sortzaileen senideak oholtzara deitu zituzten. Guztiek elkartean dagoen koadroaren erreplika jaso zuten.

Hartan odolki betetako pertzaren inguruan 24 sortzaileen izenak eta argazkiak daude. Koadroa duela 50 urte baino gehiago egin zuen Jose Miguel Floresek, Jimik. Miguel Indurainek ere operari bera jaso zuen, Lakuntzako Pertzako ohorezko bazkidea baita 1991tik, bere bost tourretako lehena irabazi zuenetik. Ondoren auzatea eta poteoa, bazkaria eta dantzaldi animatua izan zuten eguna borobiltzeko.

Abenduak 13

EGUBERRIETAKO GEHIGARRIA

Jarri zure publizitatea!

PUBLI@GUAIXE.EUS / 948 564 275(2) / 661 52 32 41

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEARTOKO 13:00AK BAINO LEHEN.Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultu-
ra@guaixe.eus

OSTIRALA 22

OLATZAGUTIA Tailerra.

Jolas erraldoi kooperatiboan eta material birziklatuarekin jolasteko tailerra, *LudiGO!* Haurren eskubideak eta jolaserako eskubidea ezagutarazteko ekimenaren barruan. 7 eta 12 urte bitarteko gaztekoendako. Izena ematea: 639 76 54 20.

16:00etatik 18:00etara, *Akelarre ludotekan.*

OLATZAGUTIA Bilketa.

Egoera ahulean dauden haurrekin lan egiten duten erakundeek emateko jostailuak biltzea, *LudiGO!* Haurren eskubideak eta jolaserako eskubidea ezagutarazteko ekimenaren barruan. 16:00etatik 18:00etara, *Akelarre ludotekan.*

A25 LAKUNTZA Zinekluba.

Fabricando mujeres 2.0 dokumental interaktiboaren emanaldia, liburutegiko zineklubaren barruan. 18:30ean, *liburutegian.*

A25 ARBIZU Hitzaldia.

Sheila Melcon Lopezen *Indarkeria matxistaren forma berriak* hitzaldia, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan. Euskaraz. 18:30ean, *eskola zaharrear.*

ALTSASU Hitzaldia.

Adan Kovacsics itultzailearen *Emigrantea, beti emigrantea* hitzaldia, Roberto Valenciac aurkeztuta eta gidatuta, *+Encuentros/Topaketak* programaren barruan. Gaztelaniaz. Doan edukiera bete arte. 18:30ean, *lortia kultur gunean.*

LAKUNTZA Kalejira.

Santa Zezilia: Zarata txarangaren kalejira.

19:00etan, *herritik.*

ALTSASU Solasaldia.

Itoiz Artozki Artezki Itoitz, Artozki eta gainerako herriak hustu eta eraitsi zireneko 20. urteurrena eta haietan izandako borroka eta erresistentziaren inguruko erakusketaren solasaldia. 19:30ean, *lortia kultur gunean.*

ALTSASU Kalejira.

Santa Zezilia: Altsasuko Txistularien kalejira. 20:00etan, *Foru plazatik.*

ALTSASU Kalejira.

Santa Zezilia: Altsasu Kantuz. 19:30ean, *Kukuerreka elkartetik.*

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Milagros eta Valentina Lorena Arangoaren eta Aintzane Baleztenaren antzezlanaren emanaldia: herriko plazak zeresana emango du; Mirarik eta Valentinak bizitza osoan ezagutzen dute elkar, edo hori uste dute. Zeregin komun bat dute, haien senar zenduen azken nahia betetzea. Sarrerak: 6 euro. 22:00etan, *kultur etxean.*

ALTSASU Gazte agenda.

Gaubela. Aldez aurretik izena eman, 3 eurotan. 22:00etatik 09:00etara, *Intxostiapunta gazte gunean.*

LARUNBATA 23

A25 ALTSASU Jardunaldia.

A23 'Indarkeriaren matxistaren kontra kaleak hartu' egitaraua:

10:00 Mural margotzea, *rokodromoan.*

11:00 Autodefentsa tailerra, Gure Etxea eraikinean.

12:30 Sokatira erakustaldia, Foru plazan (eguraldi txarrarekin, lortia zabalguneko estalpean).

14:30 Bazkaria, Foru plazan (eguraldi txarrarekin, Gure Etxea eraikinean).

17:00 Psikologo aditu batekin solasaldia: Indarkeria matxistaren aurpegi ezkutua: osasun mentala.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Azken erromantikoak

Igandea 24 17:00
Astelehena 25 19:00

Elly y el equipo de monstruos

Igandea 24 17:00

Gladiator 2

Osteguna 28 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Anora

Igandea 24 19:00

Las chicas de la estación

Osteguna 28 19:00

19:00 Dantza eta arte ekitaldia, Foru plazan (eguraldi txarrarekin, lortia zabalguneko estalpean).

AIZKORBE Kalejira.

Santa Zezilia: Haize Berriak bandaren kalejira.

10:30etik aurrera, *herritik.*

LAKUNTZA Festa.

Puzgarrien festa handia, Lakuntzako eskolako gurasoen elkarteak antolatuta, hainbat laguntzaileekin batera. Sarrerak: 5 euro, Ogi berrin. *Behar zana pilotalekua.*

Egunean zehar, pintxoak, taberna, txokolata eta musika.

11:00-13:30 Puzgarriak.

16:30-19:00 Puzgarriak.

19:15 Buruhandiak.

20:00 Zezensuzko txikiak.

Oharra: eraman zure zezentxoa.

ERROTZ Kalejira.

Santa Zezilia: Haize Berriak bandaren kalejira.

11:30etik aurrera, *herritik.*

ALTSASU Kalejira.

Santa Zezilia: Haize Berriak bandaren kalejira.

13:00etatik aurrera, *herritik.*

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Santa Zezilia: Etxarri Aranazko Abesbatzaren *Izan zaitze*



A25 ALTSASU Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko fikziozko liburu erakusketa irakurketa gida, liburutegiak antolatuta.

Azaroan. Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. *Liburutegian.*

ALTSASU Palestinari buruzko erakusketa: Mohammed Zaanoun argazkilariaren Gazatik ihesaldia eta Israelgo inbasioaren lehenengo egunak erakusten ditu.

Azaroaren 29ra. Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. *Liburutegian.*



ALTSASU Itoiz Artozki Artezki erakusketa.

Abenduaren 10era arte. Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta igandetan 18:00etatik 20:30era. *lortia kultur guneko erakusketa gelan.*

OLATZAGUTIA *LudiGO!*
Erakusketa: jolasteko eskubideari eta haurren garapenerako duen garrantziari buruzkoa. Azaroaren 22tik 28ra. *Liburutegian.*



abesbatzako kide egun batez kontzertua.

16:30 Entsegua, elizako abesbatzaren entsegu lokalean.

19:00 Kontzertua, Andra Mari basilizian. Ondoren, afaria.

ETXARRI ARANATZ Tailerra. Buruhandi tailerra.

17:30ean, *kultur etxean.*

A25 ALTSASU Gazte agenda.

Gazte zinema: Indarkeria bikarioei buruzko filma, Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan, Gazteria zerbitzuarekin batera. 18:00etan, *Intxostiapuntan.*

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

ALTSASU Antzerkia.

Hechos y faltas antzezanaren emanaldia: *What Happens There* liburuen Bernabe Rico antzerkigilearen egokitzapena, Angeles Martin, Jorge Sanz eta Gonzalo Heroso aktore ospetsuekin. Kazetaritza buruzko hausnarketa egiten du. Azken sarrerak (12 euro). **19:30ean, Iortia kultur gunean.**

ALTSASU Kalejira.

Santa Zezilia: Erkudengo Ama Abesbatzaren kalejira. **20:00etan, Iortia zabalgunetik.**

IGANDEA 24**ALTSASU Txirindularitza irteera.**

Barranka Txirindularitza Taldeko BTT taldearen irteera: Eulateko gaina, 53 kilometro. **08:30ean, Zumalakarregi plazan.**

LAKUNTZA Topaketa.

Zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa, Sakanako Mankomunitateko Emakumeendako Kirol Topaketak. **10:30etik 13:00etara, Haritz Zaharren ibilbidean.**

OLATZAGUTIA Antzerkia.

Mr. Bo Marie de Jongh konpainiaren familiarteko ikuskizuna: Bo jaunaren istorioa kontatzen du; nagusi bat eta hiru zerbitzari agertzen dira, eta boterearen miseria eta keriak azaleratzen ditu. Maskara eta komedia, eta clowna eta naifa uztartzen ditu. 3 edo 4 urteko gorakoendako. Sarrerak: aurretik, 3 euro; egunean bertan, 3,5 euro. **17:00etan, kultur etxean.**

LAKUNTZA Filmaren aurkezpena.

Ai, hau pena niki! Jose Luis Erdoziaren filmaren emanaldia. **18:30ean, kultur etxean.**

IRURTZUN Filmaren emanaldia.

Bizkarsoro filmaren emanaldia: Euskaraz aritzeagatik jazartutako 1914tik 1982ra gertatzen diren bost istorio. Euskaraz, gaztelaniazko azpitituluekin. Sarrerak: 3 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

ASTELEHENA 25**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduen Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, udaletxearen aurrean.**

A25 IZURDIAGA Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguneko

Mugimendu Feministaren elkarretaratzea, *Ez bazara konponbidea, arazoa zara* lelopean. **18:00etan, plazan.**

A25 LAKUNTZA Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea, *Ez bazara konponbidea, arazoa zara* lelopean. **18:00etan, plazan.**

A25 ARBIZU Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea, *Ez bazara konponbidea, arazoa zara* lelopean. **18:00etan, plazan.**

A25 BAKAIKU Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea, *Ez bazara konponbidea, arazoa zara* lelopean. **18:00etan, erdiko iturrian.**

A25 IRURTZUN Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea, *Ez bazara konponbidea, arazoa zara* lelopean. **19:00etan, plazan.**

A25 ALTSASU Manifestazioa.

Azaroak 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguneko Mugimendu Feministaren eskualdeko manifestazioa, *Ez bazara konponbidea, arazoa zara* lelopean. **19:00etan, Foru plazatik.**

A25 ALTSASU Mobilizazioa.

A25 Indarkeria matxistaren aurka borrokatu! Itaiaren mobilizazioa. **20:00etan, Foru plazan.**

ASTEARTEA 26**LAKUNTZA Tailerra.**

Joskintza tailerra. **16:00etatik 19:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitza.**

ALTSASU Liburu aurkezpena.

Mari Romero idazlearen *La raya del pantalón* azken eleberraren aurkezpena. **18:00etan, Iortia kultur gunean.**

ASTEAZKENA 27**A25 ALTSASU Irakurketa kluba.**

Feminismoa irakurgai. Joana Maiz, Yurre Ugarte idazlearen liburuen

inguruan Iratxe Retolazarekin solasean, Berdintasun zerbitzuak eta liburutegiak Azaroaren 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan. Euskaraz. **17:30ean, Iortia kultur gunearen erabilera anitzeko aretoan.**

A25 HIRIBERRI ARAKIL Zineforum.

No estás sola. La lucha contra la manada film dokumentalaren emanaldia eta Iratxe Alvarez Indarkeria sexistaren kontrako emakumeen plataformako kidearekin solasaldia. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan. **19:00etan, kontzeju etxean.**

ALTSASU Aurkezpena eta hitzaldia.

Euskal Herrian Euskaraz abenduaren 7ko Euskararen errepublika aldarrikatzeko manifestazioaren aurkezpena eta Gorka Torre Iparraldeko EHEko kidearen hitzaldia. **19:00etan, Gure Etxean.**

OSTEGUNA 28**ETXARRI ARANATZ Hitzaldia**

Lidon Sorianoaren *Palestina ¿Crisis humanitaria o limpieza étnica?* Hitzaldia. Ondoren, auzate palestinarra. Etxarri Palestina Elkartasun taldeak antolatuta, Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin. **19:30ean, kultur etxean.**

OSTIRALA 29**UHARTE ARAKIL Tailerra.**

Indar tailerra emakumeentzat, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak sustatutako eta Sakanako Mankomunitateak eta Uharre Arakilgo Udalak antolatuta. Izena ematea: *kirolak@sakana-mank.eus* epostan edo 610 812 888 (Itziar) telefonoan eman daiteke izena. **17:00etatik 19:00etara, udaletxean.**

ALTSASU Hitzaldia.

Carolina B. Garcia-Esvez arkitektuaren *Itzalik gabeko mundua. Artearen paradoxa kopia edo asmakizun gisa* hitzaldia, Berta Viterik aurkeztuta eta gidatuta, *+Encuentros/Topaketak* programaren barruan. Gaztelaniaz. Doan edukiera bete arte. **18:30ean, Iortia kultur gunean.**



ESKELA

**Miguel Angel Vicente Escaño**

'Zapa'

2024ko azaroaren 13an hil zen

Beti egongo zara gurekin

Zure anai-arrebak, ilobak eta iloba txikiak

Olazti

ESKELA

Miguel Angel Vicente Escaño

(Asier Vicente de Miguel zinegotziaren aita)

Gure doluminak familia eta lagunei



Olazti Udala

IRAGARKI SAILKATUAK**HIGIEZINAK****ALOKAIRUA**

Zure autokarabana, karabana edo furgoneta gorde nahi duzu? Iturmendin, pabiloi itxi batean plazak alokatzen dira, 24 orduko alarmarekin. Deitu! 646 843 579.

LANA/NEGOZIOAK

Mank-en lan egiteko aisialdiko begirale eta kirol monitore lan politak osatu nahi dira: Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

IKASTAROAK

Helduentzako Euskal Dantza ikastaroa Olaztin: Informazio gehiago eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus edo 610 812 888 telefonoan.

Nafar Lansare-k tailer informatiboa antolatu du: Azaroaren 28an, Altsasuko egoitzan, Agentzia Enpleguak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan. Plaza mugatuak dire-

nez izena eman behar da.

Pintura ikastaroa Arbizon: Hasi berrientzat nahiz sakonduta nahi dutenentzat. As-teazketan izanen da. Informazioa eta izen emateak Arbizuko_udaletxean.

Indar tailerra emakumeentzat: Azaroaren 29an Uharre Arakilen. Informazio gehiago eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus edo 610 812 888 telefonoan.

Pintura ikastaroa Olaztin: Udalak antolatutako ikastaroaren inguruko informazioa eta inskripzioa www.olazti.com web orrian edo udaletxean.

Lakuntzan ikasturteko ikastaro eskaintza heldu eta gazteenentzat: Hainbat erakundek antolatzen dituzten ikastaro eta tailerretan izena emateko haiek jarri behar da harremanetan, edonola ere eskaintza guztien berri www.lakuntza.eus web orrian ikusi daiteke.

Gimnasia terapeutikoa fibromialgia eta Neke Kronikoa dute-

nentzako: Osasuna hobetzeko jarduerak fisiko espezifikoko egingo dira ikastaroak Altsasun, Etxarri eta Irurtzun. Informazio gehiago eta izen emateak Sakanako Mankomunitatean (948 464 866) edo AFINan (948 135 333) telefonoetan. Emailaz kirolak@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

OHARRAK

Elkartasunezko bilketa Olaztin: Abenduaren 12ra arte, goizeko 9:30tik 11:30ra Olazti kultur etxean, materialak bigarren eskuko azokan salduko dira. Informazio gehiago 610 812 888 telefonoan edota anizartean@sakana-mank.eus e-postan.

Odol emateak Olaztin: Azaroaren 26an 17:00etatik 21:00etara Sutegin.

Elikagai Bankuaren jaki bilketarako boluntarioak behar dira: Bilketan parte hartu nahi duenak bancoalimentosnavarra.org web orrian

izena emteko aukera du.

Arakilgo egutegirako argazki bila: Arakilgo Udala 2025 urteko egutegia egiteko Arakilgo txokoaren argazki bila dabil. Informazio gehiago Arakilgo Udala-lean.

Altsasuko Udalak ikastetxei zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du: Ikasturte honetan garatuko diren jarduerak laguntzeko da. Dirulaguntza deialdiaren oinarriak eta informazioa www.altsasu.net webgunean.

Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak info.hondakinak@sakana-mank.eus e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkiaburak.eus

ESKELA



Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

Zure oroitzapenak herriko plazan gurekin dantzan jarraituko duelakoan, gogoan zaitugu. Eskerrik asko, Piloto!

2015eko kinta

ESKELA



Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

'Piloto'

Plazer bat izan da gure familian zure adiskidetasun eta konpainiaz gozatzea. Beti gure bihotzetan.

Marian, Antonio, Naroa eta Maite
Altsasu

ESKELA



Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

'Piloto'

Besarkada handi eta goxo bat familiarendako

Juneren kuadrila

ESKELA



Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

'Piloto'

Euskaratik eta euskaraz, eskerrik asko.

Altsasuko Euskal Herrian Euskaraz

ESKELA



Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

(Irigo Aritza ikastolako lehendakari ohi eta June Bengoetxea irakaslearen aita)

Ikastolako hariztiko hostoak orbeltan

Irigo Aritza ikastolako familia, irakasle, ikasle eta langileak

ESKELA



Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

'Piloto'

Ikasgelako zure aulkia hutsik geratu da, baina, zure ondoan barrez segituko dugu. Aio piloto.

AEK-ko zure taldekideak

ESKELA



Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

'Piloto'

Urak dakarrena urak daroa. Zuk emandakoa gurekin gelditzen da

Altsasuko SCoop-eko lankideak

ESKELA

Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

'Piloto'

Mila esker zure laguntza guztiagatik. Betirarte Piloto.



JAIOTZAK

- **Mara Herrero Aldeano**, azaroaren 12an Altsasun.
- **Leonor Alves Dasilva**, azaroaren 9an Altsasun.
- **Aimar Jauregi Covas**, azaroaren 16an Irurtzunen.

HERIOTZAK

- **Luis Mendia Aguirre**, urriaren 27an Ziordian.
- **Miguel Angel Vicente Escaño**, azaroaren 13an Olaztin.
- **Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana**, azaroaren 16an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus


LABURREAN

Haritz Zaharren
Ibilbidean, gustura

Mank-ek antolatutako Emakumeendako Kirol Topaketan barruan, azaroaren 10ean Haritz Zaharren Ibilbidea egitera animatu ziren hamazazpi pertsona inguru. Izaskun Errazkin Beltza euskara teknikariak zuhaitzen berezitasunen berri eman zien. Azaroaren 24an zoru pelbikoa lantzeko ariketak landuko dituzte, Lakuntzan.

Erreginaren Kopa,
Irurtzunen

Osasuna Futsal F. taldea Xotaren egitura sartu da aurtan. Emakumezkoen bigarren mailan jokatzeko taldeak, eta Erreginaren Kopan murgilduko da. Hain zuzen ere, lehen mailako liderra, Futsi Atletico Navalcarnero taldea izango du aurkari kopan. Partida azaroaren 26an jokatu da Irurtzongo Atakondoa kiroldegian, 20:00etan.

Javier Larrea, talde
nagusiarekin lanean

Javier Larrea urdiaindarrak jubenilen mailako Xotako jokalaria da. Azaroaren 17an berak eta Luca Catena kadete mailako jokariak Osasuna Magna Xota lehen mailako taldearekin entrenatu zuten, Miguel Hernandez entrenatzailearen esanetara. Xotan pozik daude harrobiarekin. "Harrobian egiten den lanak fruitua ematen jarraitzen du".

Saralegi eta Mitxelena,
Euskadiko gazteen top-ean

AIZKORA Aitor Saralegi irurtzundarrak Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketa irabazi du, Oier Mitxelena altsasuarraren aurretik. Biek bikotea osatzen dute martxan dagoen Gazteen Mailako Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketan

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Aizkolari gazte sakandarrak indartsu datoz. Azaroaren 10ean Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketa jokatu zen Arrietan. Bederatzi aizkolari lehiatu ziren guztira, tartean bi sakandar, eta hain zuzen ere bi sakandar horiek izan ziren bi onenak. Aitor Saralegi Nagore 16 urteko aizkolari irurtzundarra izan zen txapel-duna, (12:59), Oier Mitxelena Mazkiaran altsasuarraren aurretik (13:50).

Herri kirolarien familiakoak

Herri kirolari handien semeak dira Aitor Saralegi eta Oier Mitxelena. Lehen, Mieltxo Saralegi harri jasotzaile leitzararen (329 kilo jaso zituen) eta Edurne Nagore irurtzundarraren semea da, azken hau Txomin Nagore futbolari ohiaren eta Jorge Nagore pilotari ohien arreba. Gainera, Ruben eta Eneko Saralegi aizkolari leitzarren eta Iker Vicente aizkolari handiaren lehengusua da. Aitor Saralegik aizkora eta futbola partekatzen ditu, Liga Nazionaleko Beti Onak taldean jokatzeko baitu. Bere aldetik, bigarrena Bixente Mitxelena segalari handiaren eta Ainhoa Mazkiaran herri kirolariaren semea da, eta aizkoraz gain, segan ere ibili izan da.



Oier Mitxelena, gorritz, eta Aitor Saralegi, beltzez, Arrietako finalean. UTZITAKOIA

Urrezko Binakakoan, bikote

Aitor Saralegik eta Oier Mitxelena, Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketako txapeldun eta txapeldunorde izateaz gain, bikotea osatzen dute martxan dagoen Gazteen Mailako Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketan. Azaroaren 3an Leitzan jokatu-tako jardunaldian bigarrenak sailkatu ziren (9:09), Aritz Oiarbide etxarriarraren eta Julen Urrutiaren atzetik (9:05). Hirugarren Jon Erdozia eta Jon Zaldúa II.a sailkatu ziren (10:24) eta laugarren Osinalde eta Aittola (10:38).

Resano eta Kortxero

Azaroaren 17an Euskadiko Bigarren mailako Aizkolarien Txapelketako finala jokatu zen Azkoitian. Txapelduna Mikel Larrañaga (18:46) izan zen, Eneko Otañoren aurretik (19:23). Biek lehen mailara igotzea lortu zuten. Iban Resano dorrobarra bosgarren sailkatu zen (26:24), azken aurrekoa. Eloi Kortxerok, aldiz, Urrezko Aizkolari Kopako kanporaketa jokatu zuen Igorren, eta kopan aurrera egitea lortu zuen, Oier Kañamaresekin eta Joseba Otaegirekin batera.

CBASK,
Topaketan

SASKIBALOA Nafarroako Saskibaloia Federazioak Educa programaren ikastaroko lehen saioa antolatu zuen asteburuan Erriberrin. Bertan CB Olite, CB Oncineta, Peña Azagresa, CB Burlada eta CBASK Altsasu klubetako 61 jokalarik eta 12 teknikaririk parte hartu zuten. Saskibaloiaz gozatu, eta klubaren arteko harremanak landu zituzten.



NAFARROAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

EMAKUME PREFERENTEA

8. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Peña Sport 2-2

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA. 1. FASEA

1 Altsasu 19
2 Gazte Berriak 18

HURRENGOA

AZAROAK 24. IGANDEA

18:00 Gazte Berriak - Altsasu (Antsoain)

Altsasuk lidergoa jokoan

Gazte Berriak bigarrenaren kontra lidergoa du jokoan Altsasuk, Antsoainen.

GIZON ERREGIONALA

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

San Jorge - Altsasu 3-4
Mendillorri - Etxarri Aranatz 0-3
Aurrera - Lagun Artea 0-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Altsasu 27
3 Etxarri Aranatz 21
8 Lagun Artea 15

HURRENGO JARDUNALDIA

AZAROAK 23. LARUNBATA

16:30 Altsasu - Berriozar (Dantzaleku)
15:45 Etxarri - Aurrera (San Donato)
16:00 Lagun A. - Beti Onak B (Zelai Berri)

Altsasuk sendo jarraitzen du lidergoan

Altsasuk galtzea zer den jakin gabe jarraitzen du. San Jorge bigarrenari irabazi zion, eta larunbatean Berriozar laugarrenarekin berdina egin nahi du.

Etxarri, bidetik atera gabe

Etxarri Aranatzek Mendillorri irabazi zion eta bihar, etxean, Leitzako Aurrerarekin bide beretik segi nahi du, goian jarraitzeko.

Lagun Artea, garaipenaren xendan

Aurrera taldearen kontra bigarren garaipena jarraian lortu eta gero, animoso daude lakuntzarrak eta Beti Onak B taldearen kontra konfiantza alde dute.

**ARETO FUTBOLA Talde sakandarrak,
txanponaren bi aldeak**

Hirugarren mailan Aralar Mendik 5-1 galdu zuen Gazte Berriarekin. Bihar, larunbata, 18:00etan, Ardoi hartuko du. Lehen maila autonomikoan Arbizu liderrak (Unibertsidad 2-6 irabazi) Ribera de Navarra hartuko du gaur, 19:30ean, Arbizun. Altsasu bosgarren da (Gazte Berriak 4-2 irabazi) eta bihar Anaitasuna du aurkari 18:39ean Iruñean. Emakumezkoen lehen senior mailan Xotak (Mendialdearekin 1-3 galdu) bihar Lacturale Orvina liderra du aurkari Ezkaban.

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ
Joanes Bakaikoa Lau eta Erdiko B Serieko txapeldun handia dugu. Aurrelari etxarriarrak larunbatean Labriten jokaturako emozio handiko final estuan, 22-16 hartu zuen mendean Iker Larrazabal, eta kaiolako bere hirugarren txapela lortu zuen. Lagunekin eta gertukoekin gustura ospatu zuen lorpen handia, eta aste honetan atseden hartu nahi du, eskuak guztiz errekuiperatzeko. Binakakoa ate joka du, faltan duen txapela bakarra.

Hasieran parekotasuna izan zen nagusi, baina hiru sake jarraian egin eta 15-11 aurreratu zinenen apurtu zenuen partida. Alde hori ongi kudeatu zenuen, eta merezitako garaipena eta Lau eta Erdiko hirugarren txapela lortu zenuen.

Bai, oso pozik nago. Hasiera nahiko parekoa izan zen; tentsio handia genuen biok. Agian ez zen partida borobil-borobila izan, baina emozio handia egon zen. Biak paretsu ibili ginen, baina partida, azkenean, nire aldera erori zen, eta pozik.

Finalaren bukaeran urduri zeundela aitortu zenuen. Horrenbestera izan al zen?

Urduri nengoen, baina aurretik jokaturako gainontzeko finaletan bezala. Pixka bat lotuta, kateatuta jokatu nuen tarte batzuetan, askeago ibili beharrean. Agian ez nituen gauza batzuk nahi bezala egin, baina azkenean zaila izaten da finaletan oso eroso sentitzea. Bukaera garaipena lortu nuen, eta kontentu.

Biek partida ona egin zenuten, baina bigarren zatian Larrazabalek hainbat opari egin zizkizun. Errematean ere ez zen horren fin aritu. Zuri, aldiz, ofizio edo esperientzia gehiago nabaritu zitzaizun azken txanpa horretan.

Bai, Larrazabalek opari dezente egin zituen eta hori baliatu nuen. Berak normalean tantoa oso erraz bukatzen du, baina huts batzuk egin zituen. Nik ez nion sakeari abiadura handirik eman, baina hala ere min dezente egin nion sakearekin.

Noiz sentitu zenuen txapela zure-tako izango zela?

Partida erdi aldean hiru sake jarraian egin nizkionean. Nahiz eta ni guztiz eroso ez egon, bera ni bezala edo okerrago zegoela konturatu nintzen. Huts batzuk egin zituen, nahiko garbiak, eta pixka bat topera jarraitzen banuen irabazteko aukera izango nuela sentitu nuen.

"Lortutako txapela bakoitza niretako ikaragarria da"

JOANES BAKAIKOA SATRUSTEGI PILOTARIA

PILOTA Lau eta Erdiko B Serieko hirugarren txapela lortu du etxarriarrak, eta Buruz Burukoa ere badu. Binakakoa da falta zaion bakarra, aurki hasiko den txapelketa



Joanes Bakaikoa Labriteko aldageletan, txapelarekin. UZTITAKOIA

Txapelketan eskuekin arazoak izan dituzu. Eskuak nola dituzu?

Txapelketa guztian zehar astero masajistarengana joaten ibili naiz, eta horrek ere tentsioa sortu dit. Txapelketan zehar astean zehar entrenamendu onak egiten badituzu partidetara konfiantza handiagoarekin eta lasaiago joaten zara, baina txapelketa honetan apenas egin dut entrenamendu fuertirik. Suabe-suabe entrenatzen nuen partidara eskuekin ahalik eta hobekien iristeko. Horrek tentsio gehiago sortu dit, baina buelta ematea lortu dut eta aste honetan geldituko naiz, deskantsatu eskuak guztiz errekuiperatzeko.

Non ospatu zenuen txapela?

Finala Labriten jokaturatu, Iruñean. Lagunak topera ibili ziren bazkaritik hasita, eta gero beraiekin elkartu nintzen. Oso gustura ibili ginen Iruñean buelta egiten. **Zorionak jasoko zenituen batetik eta bestetik.**

Halakoetan hala izaten da. Momentuan mundu guztia gogoratzen da zurekin, baina hemendik aste batera jendea ahaztuko da. Hala izaten da.

Txapela norendako da?

"HIRU SAKE JARRAIAN EGIN NIZKIONEAN SENTITU NUEN TXAPELA NIREA IZAN ZITEKEELA"

Finalean aita aipatu nuen, baina egunero egoten naizen jendearendako eta niretako onena nahi dutenendako da. Ildo honetan oso pozik nago egiten ari naizen lanarekin, baina txapela irabazi ez banu ere lana berdina izango zen, eta kontentu nengoke. Ematen du txapela irabazita gauzak hobeki egin dituzula, baina gauzak ongi eginda ere batzuetan ez dira ongi ateratzen. Beraz, gauzak ongi egiten saiatu beharra dago, eta gero ongi edo gaizki ateratu, ahalik eta alaien egoten. **laz lesionatu zinen eta ezin zenuen txapelketan parte hartu, eta aurten txapelduna zara. Kirolari baten ibilbidean gorabeherak izaten dira, eta hor alde emozionalak garrantzia handia du. Buelta ematen jakiteak.** Kirol mundua oso gorabeheratsua da, emozio asko izaten dira eta garrantzitsuena da emozioen aldetik nahiko neutro mantentzea eta astelehenero berdin-berdin lanean jarraitzea. Oroitzen naiz iaz sentsazio oso-oso onak nituela eta gero Lau eta Erdiaren aurreko astean lesionatu nintzen. Aurten, aldiz, kontua ongi ateratu zait.

Aurreko astean esan zenuen kaio-lan hirugarren txapela lortzea ikaragarria izango litzatekeela. Hala izan da?

Niretako bai. Lortutako txapela bakoitza niretako sekulakoa da. Edozein modalitatetan edozein txapela irabaztea ikaragarria da, benetan.

Lau eta erdiko hiru txapela dituzu (2018, 2021 eta 2024) eta Buruz Buruko bat (2023). Koroa hirukoitza lortzeko Binakako txapela falta zaizu, aurki hasiko dena. Binakako txapela lortzea da helburua?

Polita litzateke. Gainontzeko txapelketetan bezala, Binakakoan ahalik eta maila hoberena ematen saiatuko naiz.

Txapelarekin konfiantza gehiagorekin helduko zara Binakakora?

Norbera nola sentitzen den, hori da garrantzitsuena. Uste dut tentsioak eta halakoak albo batera utzi, eta Binakakoan pixka bat gehiago disfrutatuko dudala kantxan. Ea lesiorik ez den agertzen, hori da garrantzitsuena, baita egunerokoak disfrutatu eta kantxan ahalik eta hobekien jokatzea.

Zer diote gertukoek? Txapelarekin pozik?

Beraiek ere badakite helburuak lortzeko nahikoa lan egin dudala, eta esfortzuak merezi duela ikusita, oso pozik daude.



Eserita, Miguel Angel Aristorena, Amaia Gerrikagoitia, Javier Conde eta Manex Pedroarena. Atzean Yanira Aristorena, Imanol Mosqueira, Bernat Garmendia eta palistak.

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Azaroaren 30ean hasi eta abenduaren 28an despedituko da Gure Pilota Elkartek Sakana Mankomunitatearekin eta zenbait entitate eta enpresen babesarekin antolatutako 20. Sakana Neska Pala Txapelketa. Astelehenean aurkeztu zuten 20 urte bete dituen txapelketa beterano garrantzitsua, Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan. Aurkezpenaren Gure Pilota Elkarte Miguel Angel Aristorena, Bernat Garmendia eta Imanol Mosqueira juntakideak, Yanira Aristorena entrenatzailea eta Mankomunitateko kirol zerbitzuko buru Amaia Gerrikagoitia izan ziren, bestelako babesleez lagunduta: Nafarroako Euskal Pilota Federazioko presidente Javier Conde, federazioko kirol zuzendari Manex Pedroarena, elite mailako Haizea Salanueva eta Olaia Sarasibar palistak, txapelketan lehiatuko direnak, eta, jakina, Gure Pilotako zenbait palista. Guztiak irribarretsu azaldu ziren, izan ere, egunero ez baitira 20 urte betetzen.

64 bikote

Gure Pilota klubak antolatzen duen txapelketa paleta goma modalitateko lehiaketa pribatuen artean ezagunenetakoa da. "Aurten 128 neskek hartuko dute parte, 64 bikotetan banatuta eta 26 partidarekin" azaldu zuen Gerrikagoitiak. Hasieran ligaxka jokatu da, hiru asteburutan:

128 palista dena emateko prest

PALETA GOMA Azaroaren 30ean hasi eta abenduaren 28an despedituko da 20. Sakana Neska Pala Txapelketa. Guztira 128 palista lehiatuko dira, modalitateko onenak. Eliteen mailan sei bikote lehiatuko dira, lehen mailan hamabi eta txikien mailan 46

azaroaren 30ekoan, abenduaren 7koan eta abenduaren 14koan. Finalerdiak abenduaren 21ean erabakiko dira, eta final handia abenduaren 28an izango da. "Egun hori festa handia izan dadila nahi dugu" nabarmendu zuen Miguel Angel Aristorenak.

Parte hartuko duten pilotariak Nafarroako Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Iparraldeko palistak dira. "Bost probintziatako hamahiru klubetatik datoz. Gazttxoenak 8 urte ditu, eta helduenak 40 urte beteak ditu. Aniztasun handia egongo da" aipatu zuen Gerrikagoitiak.

"URTE ASKO DARAMATZAGU TXAPELKETA BABESTEN"

AMAIA GERRIKAGOITIA

Urtero bezala palista onenek egin dute bat txapelketan. "Beti bezala, maila oso handikoa da gure txapelketa, baina aurten gehiago. 20 urte, zenbaki handiak dira horiek, eta ospatu beharra dago" argi dute Gure Pilota elkarteok.

Lau frontoi

Euskalerriri pilotalekuaz gain, Sakanako beste hiru pilotalekutan jokatu da txapelketa. "Gehiena Etxarri Aranatzeko jokatu dugu, baina hiru frontoi eskatu ditut; Unanun eta Dorraon, kategoria txikien jokatzeko eta herriei bizitasun pixka bat emateko, eta Uharte Arakilen, lehenengo mailako jokatzeko. June Astiz palista bertakoa da, eta jende asko eramaten du frontoira. Etxarritik ateratzea ere positiboa da, paleta goma gehiago ezagutarazten

dugulako" gaineratu zuen Aristorenak, aipatu herrietako udalei eskerrikeri beroenak emanez.

Txapelak eta bestelakoak

Eliteen mailan sei bikotek parte hartuko dute, lehen mailan hamabi bikotek eta txikien mailan 46 bikotek, sei taldetan banatuta. Antolatzailak aipatu zuten, kategoria bakoitzeko irabazleek txapela, garai-kurra eta kirol materialaren oparia jasoko dituzte, eta txapelkunordeek ere euren garai-kurra eta kirol materialaren oparia izango dute.

"ARISTORENA INSTITUZIO BAT DA, PALA SUSTATZAILA HANDIENETAKO BAT" JAVIER CONDE

20. Sakanako Neska Pala Txapelketa

Eliteak (6 bikote):

- **A taldea:** Enara Macicior-Maidar Ardanaz, Uxue Murillo-Irati Ruiz de Azua eta Haizea Salanueva-Garazi Eizmendi
- **B taldea:** Amaia Larralde-Paula Gorostiaga, Naroa Saez-I. Sesma, Amaia Irazustabarrena-Laura Saez

Lehen maila (12 bikote)

- **A taldea:** Nahia Eizmendi-Ane Kerejeta, Elai Zabalza-Onditz Gaintzarain eta Julene Inunciaga-Irati Garziarena
- **B taldea:** Juncal Quevedo-Nahia Esparza, Lexuri Lazkoz-Olaia Sarasibar eta Irene Arraztoa-Andrea Lusarreta
- **C taldea:** Irati Purroy-Maialen Larraza, Naroa Zulaika- Auritze Beltza eta Naroa Eziolaza-Elene Argain
- **D taldea:** Amaia Lopez-Naiara Aldasoro, Aroa Arrosagarai-Ane Casillas eta June Astiz-Maria Eguzkiza

Txikiak (46 bikote)

- **Sei talde:** Txitoak, Tximeletak, Kattagorriak, Usoak, Pottokak eta Beltxargak.

Conde, "oso eskertuta"

Nafarroako Euskal Pilota Federazioko kirol zuzendari Manex Pedroarenak Sakana Neska Pala Txapelketa "aitortutako txapelketa ez ofiziala" dela gogoratu zuen. "Ez da ofiziala, baina federazioak duen entitatea aitortzen dio txapelketari, eta bien arteko elkarlana dago atzetik. Gure Pilotarekin hitz egiten da federaziotik antolatutako beste-lako txapelketak data bertsuetan ez antolatzeke, hau da, datak ez zapaltzeko, eta Federazioak epaileak bidaliko ditu". "Zerbait gehiago ere etorriko da" gaineratu zuen Nafarroako Euskal Pilota Federazioko presidente Javier Condek.

Ildo honetan, Sakanako txapelketarendako hitz ederrak izan zituen Condek. "Txapelketa bat 20 urtetara heltzeak erakusten du atzean lan handia dagoela". Miguel Angel Aristorenaren lana goraiatu zuen. "Aristorena instituzio bat da pilota munduan, palaren sustatzaile handienetako bat".

Opari bat

Sakanako Neska Pala Txapelketan 128 palista lehiatzea baliolan jarri zuen Condek. "Parte hartze handia da, eta horrek erakusten du harrobitik lan handia egiten dela. Gustua ematen du horrenbeste maila duten palistak ikustea". Hala ere, txapelketa "data politetan" jokatzeko dela nabarmendu zuen. "Abenduko data horietan jokatzea eta finalak abenduaren 28an izatea opari bat da". Azkenik, federaziotik laguntza emateko prest daudela azpimarratu zuen eta erakundeei eskerrak eman zizkien txapelketa aurrera egiteko ematen duten laguntzagatik.

Mank, beti gertu

Bertako udalez gain, Sakanako Mankomunitatea da txapelketa gehien sustatzen duena. "Urte asko daramatzagu txapelketa laguntzen, bereziki emakumeen kirola sustatu nahi dugulako" aipatu zuen Gerrikagoitiak.

Azkenik, palistek txapelketa hasteko "gogoz" dagoela nabarmendu zuten, "kalitate handia duelako, ongi pasatzen dugulako, eta finalean txapelak banatu eta sariak egoten direlako. Denarengatik".



Mugimendu handia dago frontoian.

"20 urte ez dira nolanahi egiten; ospatu nahi dugu"

MIGUEL ANGEL ARISTORENA ETXARRI ARANAZKO GURE PILOTA KLUBA

20. Sakana Neska Pala Txapelketa "ikuskizun hutsa" izango dela aurreikusten du Gure Pilotako kideak, "palista onenak" lehiatuko direlako

M.B.G. ETXARRI ARANAZKO

Gure Pilotako presidente, entrenatzaile, guraso, epaile... Gure Pilotako arima da Miguel Angel Aristorena. Urte luzez darama Gure Pilotan. Hasieran Yanira eta Saioa alabak eta haien lagunak palan entrenatzen hasi zen, eta ordutik klubetik pasa diren gainontzeko guztiak.

Sakanako Nesken Pala Txapelketak azken urteetan maila oso handia izan du, baina aurtengo bereziagoa izango da txapelketak 20 urte bete dituelako.

Txapelketa batean 20 urte ez dira nolanahi egiten, eta horregatik aurtengo gogoz ospatu nahi dugu. Orain arte kategoria txikiak Gure Pilotako eskolakoei parte hartzen zuten, eta nahikoa eta sobera gara, baina 20. urteurrena ospatzeko txapelketa zabaldu nahi izan dugu eta Nafarroako klub guztiak parte hartzera gonbidatu ditugu. Txapelketari ikuskizun gehiago emateaz gain, emakumezkoen pala gehiago sustatzen jarraitu nahi dugu, oraindik ere emakumezkoen kirola bulkatu beharra dagoelako, estalita bezala baitago. Beraz, urteurrena ospatzea, eta sustapen mezu hau zabaltzea nahi genuen.

Hortxe zerbakiak: iaz 76 palista lehiatu ziren Sakanako txapelketan, eta aurtengo 128 palista; ia bikoiztu dituzue.

128 palista lehiatuko dira guztira, 64 bikote. Hau espektakulu bat izango da. Aipatu bezala gorakada gehien bat kategoria txikietan izango da, baina lehenengo mailan ere bikote gehiago lehiatuko dira aurtengoan. Iaz zortzi bikote ziren, eta aurtengo hamabi izango dira. Sekulako maila dago lehen mailan. Eta elitean, zer esanik ez. Elitean sei bikotek parte hartuko dute. Dena den, parte hartu ezin duten bizpahiru palista kenduta, ez daude gehiago. Beraz, bikote onenak lehiatuko dira Sakanan.



Yanira eta Miguel Angel Aristorena, Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan.

"GURE PILOTA TOPERA DAGO, IRAKITEN. 63 NESKA ETA 20 MUTIL DITUGU, INOIZ BAINO GEHIAGO"

Faboritorik?

Egia esaten badizut, elite mailan sei bikote oso paretsu sortu ditugu, bikote oso onak, eta ez naiz faboritorik aipatzea ausartzen. Murillo urtero ibiltzen da finalean, baina hala ere, ez nuke gehiegi nabarmenduko. Bikoteak asko berdintzen saiatzen gara beti, txapelketa lehiatua eta bizi izateko, borrokatua. Eta hori argi ikusten da emaitzetan: 25-23, 22-25... hor ibiltzen dira emaitza gehienak.

Eta lehen mailan?

Berdina. Hamabi bikote dira, eta guztiak txapelketa hasteko irrikaz daude, nolako maila eta antolakuntza dagoen ikusita. Kirol maila paretsua dute, maila handia. Txapelketa honekin emakumeak zein mailan dauden erakutsi nahi dugu, eta niretako hori da garrantzitsua. Askok emakumeek zein maila

duten ez dute oraindik sinisten. Etortzen dira eta harriritu geratzen dira. Azkenik, txikien mailan aurtengo sei kategoria sortu ditugu, askoz ere gehiago direlako. Gainera, palista bakoitzaren kirol maila kontuan hartuta egin ditugu bikoteak, adina jarraitu beharrean baino. Horretan saiatu gara.

Txapelketa aurki hasiko da, eta final handia abenduaren 28an jokatuko da.

Txapelketa ofizialki azaroaren 30ean hasiko da, baina zubia denez zerbait partida aurreratu ditugu. Final handia 28an jokatuko da, eta ez da inozentekeria (kar-kar). Larunbata da, eta finala festa egun polita izatea nahi dugu. Finalen ondoren bazkaltzera bilduko gara, eta festa giroa sortuko da, ziur.

Etxarri Aranazko Gure Pilota eskola nola dago?

Gure Pilota topera dago, irakiten. Guztira 63 neska eta 20 mutil inguru ditugu, inoiz baino gehiago. Mutilak esku pilotan trebatzen dira, palan aritzen diren bi mutil izan ezik. Eta neskek palan, esku pilotan aritzen den bat izan ezik. Duela hiru urte eskola zabaldu genuen mutilen-

dako, aspaldi ez baitziren pilotara hurbiltzen; izan ere, gure helburua esku pilota ere jasotzea da. Aurtengo 20 dira, eta pozik. Momentuz ez dute txapelketetan parte hartzen, txikiak dira, baina oso gustura aritzen dira. Neska-mutilen artean normal ibiltzen dira, eta hori da behar dena.

Entrenatzaile Yanira Aristorena alabak jarraitzen du.

Yanira da burua eta koordinatzaile lanetan aritzen dena, baina entrenamenduetarako laguntza du. Nik laguntzen diot, talde asko direlako eta ordu asko direlako, eta gero kadete mailako palistak ere txikiak aritzen dira. Kadeteek sekulako maila dute, Euskal Herri mailan oso ongi aritzen dira, eta Sakanako Txapelketan lehen mailan jokatuko dute horietako batzuk.

Juntan ere berrikuntzak daude.

Duela bi urte bospasei kide berri sartu ziren, batzuk utzi dute eta beste lau kide berri sartu dira. Oso gogotsu daude, ideia berriekin. Elkarteari beste marxa bat ari dira ematen. Biziberrituta eta ilusioz gaude. Denon artean errazago egiten da dena.

Gure Pilota Nafarroan klub garrantzitsuenetakoa izango da emakumezkoen palan.

Palista zerbakiak bai, baina klub indartsuenak Oberena eta Tennis dira. Oberenaren palista onenak fitxatu dituzte. Baina harrobia kontuan hartuta, guk gainontzeko guztiak baino palista gehiago ditugu.

Atzera eginez, duela 20 urteko txapelketak eta aurtengoak konparatuta aldea handia izango da.

Izugarria. 14 neska edo 20 gehiegi hasiko ginen... pentsa! Eta maila, asko igotzen ari da. Urte hauetako esperientzia nabari da. Lehenengo urtetan hemen ezin nuen ezta entrenatu ere, mutilak ateari joka ibiltzen ziren. Zorionez, gauzak aldatu dira. Zein poza mutikoak eta neskek elkarrekin nahastuta jokatzen ikustea, lasai-lasai.


Jende asko etortzen da Sakanako Pala Txapelketa ikustera?

Ostiraletan topera betetzen da frontoia. Sinestezina! Eta finalean, zer esanik ez.

Federaziotik nahikoa sustatzen al da emakumezkoen paleta goma?

Horretan gabilta, euren atzetik. Gurea aitortutako txapelketa ez ofiziala denez, federaziotik epaileak eta bestelako laguntzaren bat bidaliko dizkigute.

Izan giltzarri!



Tropa do Carallo Musika taldea

**Bueno hemen Tropa do Carallo gaude ta, e!
Izan zaitetz giltzarri!
leuuuup**



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



Ana Barbera ezkerretik bigarrena, Olatzagutiko errodajea. UTZITAKOIA



Olatzagutian grabatutako 'Amándala' film laburraren une bat. UTZITAKOIA



Olatzagutian grabatutako 'Amándala' film laburraren une bat. UTZITAKOIA

Olatzagutiko zinema platoa

Nafarroa, zinema lurraldea jaialdian parte hartu du Olatzagutiak, eta horren baitan Ana Barbera zinemagileak 'Amandala' film laburra grabatu zuen urriko asteburu batean. Herriaren eta herritarren harrera "zoragarria" izan dela esan du

Erkuden Ruiz Barroso OLATZAGUTIA Olatzagutia bigarren urtez zinema herria bihurtu da, *Nafarroa, zinema lurraldea* jaialdiaren barruan. Guztira, hamar film laburrek parte hartzen dute jaialdian, eta Ana Barbera zinemagileari Olatzagutia egokitu zitzaion *Amándala* film laburra grabatzeko. Urriaren 18tik 20ra izan zen errodajea. Abenduaren 1ean, igandea, 18:00etan, aurkeztutako dira lan guztiak ikusteko eta gustukoanagatik bozkatzeko aukera izanen da, Olatzagutiko kultur etxean.

"Festibala aurreko urtean ezagutu nuen eta Luzaiden parte hartu nuen. Izugarria izan zen. Jaialdia berezia iruditu zitzaidan, oso familiarkekoa". Barbera Alkantaren bizi den madrildarra da, eta aurreko urtera arte ez zuen Nafarroa ezagutzen. "Aurretik ez nintzen inoiz egon, eta oin

bat jarri bezain pronto maitemindu nintzen". Orain askotan etortzen dela gaineratu du.

Aurreko urteko esperientzia onaren ondoren, aurreko urtean parte hartzerantz animatu zen: "Maila eman zezakeen gidoi bat nuela uste nuen, aurkeztu nuen, eta finalista aukeratu zuten". *Nafarroa, zinema jaialdia* turismoa sustatzeko jaialdi bat da, eta helburuen artean daude herrialdearen ondare historiko eta kulturala eta naturalaren aniztasuna bultzatzea. Platoa bihurtzeko hamar herri aurkeztu dira: Urdax, Iruñea, Allo, Erriberri, Mendabia, Ribaforada, Tafalla, Viana, Argedas eta Olatzagutia.

"Gidoia aurkezterakoan aukera ematen digute non grabatzea gustatuko litzaiguen esateko. Normalean aukeratutakoa ematen dizute, bi edo hiru pertsonak leku berdina aukeratzen ez badute;

kasu horretan puntu sistema erabiltzen dute". Barberak Iruñea aukeratu zuen, baina beste proiektu bat zegoenez, Olatzagutia eman zioten. "Aurretik ez nuen ezagutzen, baina Imanol Reta, aurreko urtean Olatzain egon zena eta jaialdia irabazi zuena, oso laguna dut".

Olatzagutian grabatzea "zoragarria" izan da. "Aurreko urtean ere gertatu zitzaidan, dena erraztasunak dira. Virginiari kartelak behar ditudala esan, eta ematen dizkit; ez dakit non grabatu behar dudala, eta irekita daukat; hilerriaren grabatu nahi dudala, eta

"EZIN DA AHAZTU FIKZIOAREN ALDEA; BAINA JAIALDIA DELA ETA, HERRIA ERAKUTSI BEHAR DA"

giltzak eman...". Horrelakorik edozein tokitan ez dela gertatzen gaineratu du. "Virginiak esan zigun lehentasuna genuela".

Historia

Amándala da Barberak aurkeztu duen film laburra, "alzheimer istorio bat": "Alaba batek eta ama batek nola bizi duten amaren alzheimerra". *Nafarroa, zinema lurraldea* jaialdiaren helburuetako bat turismoa sustatzea denez, "herriaren toki politenak, enblematikoenak eta abar" ateratzen saiatzen dira. "Ezin da ahaztu fikzioaren alde hori, baina ezin zara horretan bakarrik zentratu. Jaialdia ezagutzen dugu, eta turismoari buruz bada, herria erakutsi behar da". Olatzainaren laguntza ezinbestekoa izan dela esan du zinemagileak. "Jendeari galdetzen genion eta hau eta beste atera behar genuela esaten ziguten". Grabatzera etorri aurretik eta Olatzagutia aukeratuak herria zela jakin zuenean, "tren bat hartu" eta herria ezagutzera etorri zen Barbera. Errodajea "ekipo oso ona" izan du; Foro Europeo Ikus-entzunezko Lanbide Heziketako eskolako kideekin lan egin du.

Urriaren 7an hamar finalistak jakitera eman zituztenetik, parte hartzaileek hilabete bat dute film laburraren aurreproduktzioa egiteko, grabatzeko eta muntatzeko. Asteazkenean zuten entregatzeko azken eguna, eta ondoren herrietatik aurkezpenak egingo dituzte. Olatzagutian abenduaren 1ean egingo dute eta sari banaketa abenduaren 13an izango da, Ribaforadan. Barberak ez daki Olatzagutian egoterik izango duen, baina Imanol Reta eta Lucia Gil film laburreko aktoreak izango direla aurreratu du.

Aurreko urtean Olatzagutian grabatutako Imanol Retaren *Última visita* irabazi zuen jaialdiaren lehenengo saria. Guztira, bost sari dira: lehenengoa, 2.500 euro; bigarrena, 1000 euro; argazki hobereana, 500 euro; publikoaren saria, 500 euro; epaimahaiaren sari berezia, 500 euro, eta interpretazio hobereana, 250 euro. "Guk lana egin dugu. Oso polita da, oso atsegina... Baina gero ez dakigu zer aurkeztu duten besteek. Maitasun handiz egin dugu, mimo handiarekin". Umore pixka batekin eramandako drama bat egin du Barberak.

Juan Mari Beltran, Manuel Lekuona saria

Eusko Ikaskuntzak Soinuenea-Herri Musikaren Txokoaren sortzailearen lana goraiatu du, musika ondare tradizionala "berreskuratu, babestu eta transmititzeagatik". Etxarri Aranatzen hasi zituen saridunak musika ikasketak

ETXARRI ARANATZ

Haurra zela, Juan Mari Beltranek Etxarri Aranatzen hasi zuen bere musika ibilbidea klarinete eta txistulari gisa. 16 urterekin Argia Donostiako Euskal Dantzari Taldean sartu zen, eta irakasle gisa Hernaniko Musika Eskolan eman zituen lehen urratsak alboka, dultzaina, txalaparta, txanbela eta txistua irakasten. Herri musikari buruzko materialak biltzen hasi zen ere, eta bilduma Soinuenea-Herri Musika Txokoaren hasiera izan zen. Beltranek musika ondarea berreskuratzen, zaintzen eta transmititzen lan egiten du, eta egindako lanagatik Euskal Ikaskuntzak 2024ko Manuel Lekuona sariarekin errekonozimendua egin dio.

Eusko Ikaskuntzak 1983. urtean sortu zuen Manuel Lekuona saria euskal kulturaren alde lan egindako pertsonak goratzeko. Beltranen kasuan, "bere dibulgazio lana multidimentsionala izan da, txikitik unibertsalera. Instrumentu familia desberdinak Europako ingurune kulturalean barneratzen eta kokatzen lagundu du", epaimahaiaren esanetan. Ondareari abangoardiako itxura ematen asmatu duela eta prestigio gabeko musika tresnei merezi duten errekonozimendua eman diela gaineratu du epaimahaiak.



Juan Mari Beltran musikaria Eusko Ikaskuntzaren egoitzan. EUSKO IKASKUNTZA

1960ko hamarkadan hasi zen Beltran musika herrikoari buruzko materiala biltzen. 2002. urtean Oiartzunen Soinuenea-Herri Musika Txokoaren folklore tradizionalaren inguruko dokumentazio, sustapen eta topaketarako zentroa ireki zuen, Euskal Herrian bakarria den museoa eta jarduera gune garrantzitsua dena. Bertan, instrumentuak, partiturak, diskoak, ikus-entzunezkoak eta grabazioak biltzen dira, etnomusikologian espezializatutako liburutegi batekin.

Beltranek ere herri musikari eta folkloreaki buruzko azterlan eta ikerketa ugari egin ditu, Euskal Herrian eta nazioartean. Horrekin batera, musika tradizionalaren eta garaikidearen arteko zubiak eraiki ditu ere.

Saria

Manuel Lekuona saria Remigio Mendiburuk sortutako brontzezko eskultura bat da, eta 2025ean, udaberri aldera, egingen den ekitaldi publiko batean emanen zaio 2024ko irabazleari.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Eta berriz



'Ai, hau pena nik!' filma Etxarri Aranatzen mustu dute

Jose Luis Erdoziak sustatutako eta herriko jendeak parte hartu duen proiektua kultur etxean erakutsi zuten

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranatzen espektazioa bazegoen. Bertako hizkeran oinarritutako *Ai, hau pena nik!* filma mustu zuten azaroaren 16an, ia beteta zegoen kultur etxean. Igandean ere aretoa bete

zen. Proiektua Jose Luis Erdoziaren ideia izan zen, eta grabazioa eta muntaia Amaia Erdoziak eta Oskar Corrozak egin zuten. Alfonbra gorritik ere Marikruz eta Marian Mundiñano, Jaxone Mendiola, Onintza Goñi, Josetxo



'Ai, hau pena nik!' filmaren mustutzea, Etxarriko kultur etxean.

eta Bixente Artieda, Joxe Migel Maiz eta Aitor Mariñelarena filmaren protagonistak pasatu ziren. Igandean, 18:30ean, Lankuntzan aurkeztuko dute.

Besteak beste, pelikularen helburua noka eta toka sustatzea da, eta bertaratutako gazteei ea ulertzen zuten galdetuta, baietz erantzun zuten. Ikus-entzuleek aktoreen lana baloratu zuten, boluntarioak izan zirelako. Zenbait pasadizo barregarriak dira, eta horrela erantzun zuen publikoak ere.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Duela ia hamar urte kaleratu zuen Mari Romero Fernandez Altsasun bizi izan zen eta herrian familia duen idazleak, eta dagoneko bere bosgarren eleberria kaleratu du: *La raya del pantalón*. Extremaduran, jaioterrian, kokatu du nobelaren zati bat eta bestea Salamankan. Emakumeei buruzko liburua da, baita familiaren eta maitasunaren garrantzia nabarmentzen duena ere. Azaroaren 26an, asteartea, 18:00etan, Iortia kultur gunean aurkeztuko du.

Nondik dator 'La raya del pantalón'?

Altsasun bizi izan nintzen hamar urteak erabatekoak izan ziren haurtzaroan eta bizitzan. Jende pila elkartzen ginen ganbararen etxean (*La casa de la buhardilla* bere lehenengo eleberria kokatzen den etxea), baina amona izan zen guretako erabakigarria. Askotan kontatzen zizkigun istorio asko eta bere garaian emakumeei dena egitea tokatzen zitzaizela esaten zigun ere. Gerra zibila eta garai gogorak pasatu zituen arren, berak etxetik kanpo lan egiten zuen ere; estraperloko kafea egiten zuen. Bilobei beti esaten zigun: "Ez pentsatu zuek gizonak baino gutxiago zaretenik! Zuek gizon batek adina edo bi aldiz gehiago balio duzue!". Buruan dudan lehenengo feminista dela esan daiteke. Arratsalde batean Quintanan, Extremaduran, geunden eta bero handia egiten zuen, eta aitaren prakak lisatzen ari nintzen. Feria zen eta aitaren poemak irakurtzen zituzten eta dotore joatea gustatzen zitzaion. Han nengoela esaldi bat etorri zitzaidan burura: abuztuko arratsalde bero horretan aitak praktetako marra galdu zuen. Legazpira etorri nintzen eta ideari bueltak ematen hasi nintzen, garatu zen, eta azkenean hitzez hitz eta orrialdez orrialde liburu bat bihurtu zen: *La raya del pantalón*.

Memoriak garrantzia handia du zure lanetan, ezta?

Bai. Ez dakit zergatik baina beti hartu dut nire nobelen gaitarako. *La casa de la buhardilla*-n migrazioa nola etorri zen lantzen dut, *El pintor de sonrisas* gerra zibila, eta *¿Por qué no nos dejáis entrar?* Mediterraneo itsasoan bizitza galtzen duten guztiei omenaldi bat da. *Etxetorre Goikoan* desagertuak eta homosexualitatea lantzen dut ere; gai horretan asko aurreratu den arren, oraindik badaude bikote homosexua-

"Nire liburu guztiek itxaropen puntu bat dute"

MARI ROMERO IDAZLEA

'La raya del pantalón' eleberria aurketuko du azaroaren 26an, Iortia kultur gunean. Bere bosgarren lana da, eta emakumea eta familia dira gai nagusiak



Mari Romero 'La raya del pantalón' liburuaren aurkezpen batean. UTZITAKOIA

lak denetarik entzun behar dutenak. Azken honetan emakumea da gaia, baita nobelan hiru pertsonaia agertzen dira, ez direla protagonistak, baina momentu batean paper oso garrantzitsua dute istorioaren garapenerako. Paulito, tío Amaro eta Marcos desgaitasun bat duten pertsonak dira, eta garrantzia eman nahi izan diet. Nire liburu guztiek ere itxaropen puntu bat dute. Benetan sinesten dut, amestu nahi dut, gauzak azkenean konponduko direla.

Beraz, gai nagusia emakumea da.

Gai asko daude. Nobelan emakume ausartak agertzen dira. Istorioa bi toki nagusietan gertatzen da. Lehenengoa Extremadura herri bat da, existitzen ez den izen bat jarri diot, baina nire herria izan zitekeen; paisaiak eta deskribapenak hortik hartu ditut. Nobela fikzioa da eta pertsonaia guztiak asmatutakoak dira, baina batzuetan idazten ari naizenean nire hatzetatik esperientziak pasatzen dira eta horrela doaz. Ezin dut bat-batean nire pentsamendu edo ideologia baztertu. Bigarren tokia Salamanka da. Lehenengoz joan nin-

"ESTILO PROPIOA MANTENTZEN DUT, ETA GAIK AUZI GALDUAK IZATEN JARRAITZEN DUTE"

tzenetik bihotza irabazi zidan. Protagonista Lola da, eta haurtzaroan gertakizun oso gogorra gertatzen zaio eta sentimendu kontrajarriak ditu. Bizitza osoa errudun sentitzen da. Amak Salamankara bizitzera eramaten ditu bera eta anaia. Han saiatzen da gertutakoa ahazten, maitemintzen da, baina ezin da bera izan; badauka zerbait ez diona uzten zoriontsu izaten, eta herrira itzultzen da. Bere izeba Rosalia primerako emakumea da eta asko laguntzen dio. Batek esan zidan ez dela hain feminista gizon onak agertzen direlako ere; sinetsi nahi dut gizon onak txarrak baino gehiago direla. Familiaren garrantzia aipatzen dut ere. Agian nik horrela bizi izan dudalako, niretzat familiak garrantzia handia dauka; Altsasuko familia izugarria da eta askotan joaten naiz.

Nola idazten duzu?

Edozein liburu idazteko abiapuntu txiki bat daukat. Idazten hasten naizenean ideia bat daukat eta beste leku batera eramaten nau, eta handik beste leku batera. Zailena da kapituluak ordenatzea. Nahi gabe ere bizi-penak sartzen dira; ezagutzen nautenek irakurtzen dutenean topatzen dituzte. Esaterako, Lola pertsonaiarekin Masi lehengusinak esan zidan: "ai, mi niña Lola". Bere aita gazte hil zen, eta hori abesten zion eta esan zidan ea horregatik jarri nuen. Nobela fikzioa da, baina badira benetakoak diren pasarteak. Literaturari garrantzia handia ematen diot. Esaera asko Etxemadurakoak dira; errealismo magiko extremeñoaren barruan dago.

Estiloa aldatu da?

Nire estilo propioa mantentzen dut. Baina ideiak garatzerakoan edo literatura mailan denborarekin hobetzen ari naizela uste dut. Gaiak auzi galduak izaten jarraitzen dutela esan zidan iloba batek; ez dut uste galdutakoak direnik. Aldarrikatzekoak dira. **Duela hamar urte bost liburu kaleratzea espero zenuen?**

Ezta pentsatu ere. Lehenengoa momentu berezi batean idatzi nuen, ganbarako etxeko izeba hil zenean. Pentsatu nuen momenturen batean familiaren bizitza kontatu behar nuela. Argitaratu eta Altsasun aurkeztu ondoren etxea bota zuten. Pentsatu nahi dut zain egon zirela; bota zuten, baina etxea liburuan gordeta geldituko da da.

"Intentzioa liburutegia dinamizatzea da"

Azaroaren 8an mustu zuten Lakuntzako liburutegi berria udaletxearen ganbaran. Espazio diafanoa eta gardena sortu dute, eta "liburu museo bat" baino gehiago izatea ere nahi du Jon Zubiaga Barrena liburuzainak

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

1 Nola joan zen mustutzea?

Oso ondo. Jende asko hurbildu zen, eta Nafarroako Liburutegi zerbitzutik Fernando Ross etorri zen ere. Berez ez gaude sistemaren barruan, urteak itxita egon denez, kanpo gelditu zen; sartzeko lanean ari gara. Patxi Xabier Razkin aurreko alkatea egon zen, berarekin hasi zen proiektua; Oihane Uribe alkatea ere egon zen... Oso gustura. Duela bi hilabete hasi nintzen lana prestatzen, eta gogoia banuen.

2 Zergatik liburutegi berria?

Agian Oihanek erantzungo zuen hobeto, baina lehengo tokia haur txoko bihurtu da eta espazio hau askoz handiagoa da. Bi ikasketa gela sortu ditugu eta funtsendako tokia dago. Espazio diafanoa eta lasaia da. Beharra ikusten zen. Nafarroako liburutegien sarean sartzeara espero

dugu, eta dimentsio handiagoa hartzea.

3 Ekintzak ere antolatuko dituzue, ezta?

Bai, ez izatea liburu museo bat bakarrik. 21ean Garazi Otsagabiaren eta Iker Uriberen *Asatoaren putza* liburuaren ipuin kontaketa izan zen, eta gaur Azaroaren 25aren harira *Emakumeak fabrikatzen 2.0* dokumentalaren zineforuma antolatu dugu. Durangoko Azokara txangoa egin nahi dugu, baita tailerrak ere. Gure intentzioa da liburu dinamizatzea eta jendea erakartzea. Bi aste hauetan ikusi dudana gatik, erronka nerabeak etortzea da. Liburuak telefono bat baino simpleagoak dira.

4 Zenbat liburu, dokumentu eta abar daude?

Programaren arabera 4.000 baino gehiago funts. Ez da oso konkretua itxita egon denez hutsunea

badagoelako. Nahiz eta liburutegi zerbitzuaren barruan ez egon, nolabaiteko laguntza emateko prest dago, eta urtarrilerako funtsak igotzea espero dugu; berritzea, gehienbat. Nobedade batzuk ekarri ditugu; badago zer eskaini.

5 Nolako izan da prozesua?

Liburutegia biziberritzeko proiektua alkateak duela urte eta erdi inguru hartu zuen. Arkitekta batekin gardentasun kontzeptua landu zen; hormak gardenak dira instituzio publikoak denez transparentzia hori fisikoki errepresentatzeko. Hartu emaneko espazio bat eta kritikotasuna sortzeko errekurtsioak beste modu batera edukitzeko espazio bat bezala ikusten da. Ohitu gara telefonoarekin dena egitera, baina informazio hori filtratuta dago. Hemen neultraltasuna bilatzen dugu. Ni azken etapan sartu



Jon Zubiaga Barrena Lakuntzako liburuzaina.

naiz; bi froga egin nituen eta lehen gelditu nintzen. Harrigarria izan zen, pozez eta ilusioz hartu nuen, baita sustoa ere.

6 Nola bizi izan duzu aurre mustutzea?

Prozesu irregularra izan da; gorabeherak izan ditu, baina oso polita izan da. Jendea oso ilusionatuta dago, eta horrek puzten zaitu. Sorkuntza prozesu bat da; espazio bat da eta ideia batekin erakargarria bihurtu behar da. Egun batzuetan oso polita eta ondo ikusten nuen, eta hurrengoan "bainazer da hau" pentsatzen nuen.

7 Eta nolakoak izan dira lehenengo egunak?

Jendea etorri da. Aurreikusten genuen ikasketa gelak erabiliko zirela, eta horrela da. Haur zonaldea erabiltzen da, eta helduen narratiba ez hainbeste, baina ere. Genero alborapen handia dago: gehiengoak neskak dira. Ehun txartel berri inguru egin ditugu; seinale oso ona.

8 Zein da zure lana?

Funts berriak eskuragarri egoteko sailkatu eta kultur ekintzak antolatu eta sare sozialetan ezagutzera eman. Espazioa bizirik mantendu. Aurrekoan mahai bat aldatu nuen ez zuelako funtzionatzen. Ingelesez *working progress* esaten dena; erabileraren arabera aldatuz joan. Antzerkiarekin eta artearekin gertatzen den moduan, liburutegiek badaukate solemnitete irudi bat jendeari atzera egiten dietena. Baina transformatzen joaten den leku bat izan behar da; jendearen

hartu eman hori modu ordenatut batean eta isiltasunean ematen dena. Liburu aitzakia da; liburutegi batek dimentsioa eta erritmoa har dezake.

9 Zein da liburu fisikoaren egoera?

Teknologia eta adimen artifiziala denon ahotan dago, baina teknologia guk sortu dugu eta gure arazoak ez dira horrekin aldatuko. Zenbait prozesu asko erraztu ditzake, eta inozogoak bihurtuko gaitu, baina jendeak kritikotasun apur bat badu nik uste ez dela dena galtuta egongo. Liburuak eta kulturak beste bide batzuk erakutsiko dizkigunaren itzaropena dut. Ez da momentu hoberena, bonbardeoa oso handia delako eta mundua pixka bat txoratu delako, pandemiatik gehienbat, baina nire ustez liburutegia horrelako freno bat da. Liburu bat hartzen duzu, eta beste mundu batera hurbiltzen zaitu.

10 Gelditzeko espazio bat da.

Gelditzeko eta konturatze pertsonak garela, eta adimen artifiziala azken finean kopia-tzaile oso sofistikatua dela.

11 Zer liburu gomendatzen duzu?

Karmele Jaioren *Maitasun kapitala* ekarri nuen eta nire debildadea Markos Gimenezaren *101 letrakartel* Joseba Sarrionandiarena. Uxue Alberdiren Hetero ere badago, eta komiki aldetik Iban Zalduaren *Botere handi batek*. Jakoba Errekondoren *Bizi-baratzea best sellerra* ere ekarri dugu, ezinbestekoa baratzea baduzu.



gik
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA
fo
619 821 436
Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus

AUTOAREN ZERKA NOLI ORDAINITZEN DA?
ITZARON, BULETINAN REGISTRATUKO DAU!

ZABALDU ZURE HERRIKO INFORMAZIOA

UDAL BULETINAK, ESKUORRIAK, LIBURUXKAK...
NAHI DUZUNA PRESTATUKO DIZUGU